

OIARTZUNGO XXXVII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2024**



XABIER LETE

prosa eta poesia lehiaketa

© Oiartzungo Udala

Lege gordailua: D-00400-2024

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Leitzaran Grafikak S.L.

OIARTZUNGO XXXVII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2024**

Idaztearen albo ondorioak

Ezin esan nezake iazko Xabier Lete Prosa eta Poesia sari emate ekitalditik hunkituta atera ez nintzenik. Are gehiago, esango nuke ez nintzela izan barrenak mugituta atera zen bakarra, areto honetan bertan izan ginen askori hemen entzun eta irakurritakoak barru-barruraino iritsi baitzitzaizkigun. Castillo Suarezzen esanetan, literaturak askorentzat ba omen du sendagarri edo botika betekizuna. Miren Agur Meabek esana da, bestalde, boligrafoa hartzeak ere min ematen duela batzuetan, baina, antza denez, gero mesede egiten omen du.

Sentitzen dugun horrek gainezka egiten digunean, nonbaitetik atera beharra du, barnean ditugun indarrak askatzeko baliabideak beharrezko ditugu, izan marrazkiak, izan musika, izan literatura. Idaztea gauza handia da, funtzio ugari dituena: sentimenduak elkarbanatzea, mundua aldatzea, kontzientziak piztea, testigantza bat jasotzea.

Xabier Lete gure poeta handiak malenkoniatik idatzi zuen, zalantzatik, ezinegonetik. Existentziaren argi-ilunetan murgildu zen, nahi eta ezinetan, itxaropenean. Gaurkoan entzungo ditugun ipuin zein olerkiek balio bezate gure min zein pozak azaleratzeko, abentura zein istorio harrigarriak bizitzeko. Asmatu eta sortu ditzagun ingurukoekin partekatze mundu berriak, mingarri bezain sendagarriak direnak.

Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Hizkuntz Normalizaziorako zinegotzia



Oiartzungo Xabier Lete Prosa eta Poesia Lehiaketaren 2024ko saridunak

2024ko epaimahaikideak:

Pello Añorga Lopez	Ipuin kontalaria
Goiatz Labandibar Arbelaiz	Kazetaria eta idazlea
Marijo Telletxea Tolosa	Irakaslea
Aingeru Palomo Zabala	Irakaslea
Olatz Mitxelena Larreta	Irakaslea
Sohalge Arbelaiz Kortabarria	Irakaslea
Imanol Irigoien Aranberri	Poeta eta margolaria
Intxixu AEK euskaltegia	
Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea	

Lehendakaria: Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi (Hizkuntz normalizaziorako zinegotzia).

Idazkaria: Aitziber Arnaiz Garmendia (Hizkuntz normalizaziorako teknikaria).

Zuzenketak: Arkaitz Goikoetxea Arriola.

Ilustrazioak: Udane Ansa Iragorri.

Azaleko ilustrazioa eta logotipoa: Metrokoadroka Sormen Laboratekiko Idoia Beratarbide Arrieta eta Allende Arnaiz Garmendia.

2024ko saridunak

SAILA MAILA PROSA

1. SAILA	LH3	EKHI MANTEROLA SALABERRIA <i>Koaderno magikoa</i>	POESIA
		MIKELE GARAI MENDIBURU <i>Maddiren abentura</i>	
2. SAILA	LH4	IZAI NAZABAL OLASAGASTI <i>Aitonari begira</i>	
		AINHOA IBARGUREN ZUÑIGA <i>Naizen bezalakoa naiz</i>	
3. SAILA	LH5-6	UMA IRASTORZA MUI <i>Esnea!</i>	MAITE IBARGUREN ZUÑIGA <i>Martxoaren indar morea</i>
		ELAIA LASA GELBENTZU <i>Nerea eta liburu galdua</i>	JAKES ETXEBESTE SALABERRIA <i>Buruko azkura</i>
4. SAILA	DBH1-2	LOLA RAMOS MARTINEZ <i>Betirako</i>	AITOR AGIRRE GONZALEZ <i>Amildegia</i>
		JUNE MACAZAGA GARATE <i>Beti egongo zara nirekin</i>	OLIVIA IGEA MARTIN <i>Galduta</i>
5. SAILA	DBH3-4	KATTALIN ARABOLAZA PALOMO <i>Zuriak ez dira itxi</i>	MADDI GARMENDIA IRASTORZA <i>Etxerako bidea</i>
		LOREA ARRUABARRENA DESTTRIBATS <i>Orain zer?</i>	MARTÍ CASANOVA MANERA <i>Ni</i>
6. SAILA	16-18 urte	MANEX ELGETA TOLOSA <i>Muga guztien gainetik</i>	MALEN ETXEBESTE LEKUONA <i>Nora joan</i>
		ILARGI ZIAURRITZ OLAZIREGI <i>Sentitzen dut</i>	AURITZ JAUREGI IRASTORZA <i>Zilarrezko argia. Zu.</i>

PROSA / AIPAMEN BEREZIA

- 1. SAILA – LH3
LAIDA LERTXUNDI ERCE – *Izar eta bere pultserak*
- 2. SAILA – LH4
LAIA MUJIKI CAMPESINO – *Egun batean*
- 4. SAILA – DBH1-2
UDANE BEREAU CORTAJARENA – *Dena ez da txarra*
- 5. SAILA – DBH3-4
INTZA ZABALETA IBARRA – *“Pi-pi-pi”*

POESIA / AIPAMEN BEREZIA

- 3. SAILA – LH5-6
UNAX ARRASTUA PAGADIZABAL – *Azken bidaia*
- 5. SAILA – DBH3-4
IRAIA GAZTELUMENDI OLASKOAGA – *Neguren hasiera*

aurkibidea



PROSA

Koaderno magikoa	14
Maddiren abentura	16
Izar eta bere pultserak	18
Aitonari begira	20
Naizen bezalakoa naiz	25
Egun batean	28
Esnea!	30
Nerea eta liburu galdua	33
Betirako	38
Beti egongo zara nirekin	42
Dena ez da txarra	46
Zauriak ez dira itxi	50
Orain zer?	55
“Pi-pi-pi”	63
Muga guztien gainetik	68
Sentitzen dut	72

POESIA

Martxoaren indar morea	78
Buruko azkura	80
Azken bidaia	82
Amildegia	84
Galduta	86
Etixerako bidea	88
Ni	90
Neguaeren hasiera.....	93
Nora joan	95
Zilarrezko argia. Zu.	98

OIARTZUNGO XXXVII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2024**



PROSA



1. SAILA



PROSA

**EKHI
MANTEROLA
SALABERRIA**

KOADERNO MAGIKOA

Behin, Oiartzunen, urriaren 21ean Irai izeneko mutiko bat jaio zen. Oso txintxo eta azkarra zen, baina batzuetan bihurri xamarra.

Handik 3 urtera bere amak koaderno bat erosi zion. Egun batean, kotxe bat nahi zuen eta koadernoan kotxe bat marraztu zuen eta koadernotik **KOTXE BAT AGERTU ZEN!!!**

Egunero marrazten zituen gauzak eta marraztutakoa egia bihurtzen zen.

Handitu zenean, familia guztiarentzat etxe bat marraztu zuen, baina zirriborro bat egin zuenez, zirriborro batean bizi izan ziren betirako.

Katu katu, ipuina bukatu.

Aiur





1. SAILA

PROSA

**MIKELE
GARAI
MENDIBURU**

MADDIREN ABENTURAK

Bazen behin Maddi izeneko neska bat. Maddik 8 urte zituen.


Goiz batean bere aitarekin tailerrera joan zen kotxea konpontzera. Kotxea konpontzen ari zirela tailerreko txoko batean ate txiki bat ikusi zuen. Bertara gerturatu eta sartzea erabaki zuen. Espero ez zuen momentuan espazio ontzi baten barruan agertu zen Maddi eta martxan jarri zen. Bat-batean espaziora joan zela konturatu zen eta bertan estralurtar bat ikusi zuen. Maddi harengana gerturatu zen.

- Nola izena duzu?
- Katara naiz. Eta zu?
- Maddi naiz.
- Hobe duzu hemendik ihes egitea.
- Zergatik?
- Gerran gaudelako.
- Laguntza behar duzu?
- Bai, eskertuko nuke.
- Goazen hemendik.
- Bai.

Denek elkarrekin hitz egin zuten eta gerra konpondu zen. Azkenean denak elkarrekin pozik bizitzea lortu zuten.

Katu katu, ipuina bukatu.

Kattin



udane
2024



1. SAILA



PROSA

**LAIDA
LERTXUNDI
ERCE**

IZAR ETA BERE PULTSERAK

Bazen behin neska bat Izar izena zuena. 10 urte zituen, begi berdeak zituen eta etxean egotea gustatzen zitzaion. Bere etxea oso handia zen. Etxean pultserak egitea gustatzen zitzaion.

Asteazken zehar ez zuen denbora librerik edukitzen pultserak egiteko, ikastolatik kanpo gauza asko egiten zituen.


Orduan bi gauzatatik desapuntatu zen eta horrela pultserak egiteko denbora zuen.

Katu katu, ipuina bukatu.

—
Lai



udane
2024





2. SAILA

PROSA

**IZAI
NAZABAL
OLASAGASTI**

AITONARI BEGIRA

Duela 5 urte Oiartzunen bazegoen familia handi bat. Familiako haurrak Jon, Unai, Maria, Jare eta Miren ziren. Egun hartan Mirenen urtebetetze eguna zen eta piano bat nahi zuen. Eguna iritsi zen, eta oparien garaia ere bai, baina ez zegoen pianorik eta oso triste jarri zen. Baina segituan konturatu zen aitona falta zela eta orduantxe aitona agertu zen pianoarekin. Miren poz-pozik jarri zen eta pianoa jotzen hasi zen.

Hurrengo egunean aitona eta Miren pianoa jotzen hasi ziren, eta aitona belarrira esan zion:

– Badakizu zer? Izugarri gustatzen zait pianoaren soinua.

Orduan gurasoek Mireni deitu zioten lotara joateko, Mirenek aitona agurtu zuen eta lotara joan zen.

Hurrengo egunean gurasoek Miren esnatu zuten esateko aitona hilda zegoela, eta Miren pianora joan zen korrika. Pianoa jotzen hasi zen, baina negar gehiago egitea besterik ez zuen lortzen eta oso triste jarri zen. Gurasoak Mirenengana joan ziren lasaitzeko esatera, baina ez zen lasaitzen.

Egunak pasa ziren eta Mirenek ez zuen hitzik esaten. Baina oporrak bukatu ziren eta ikastolara joan behar zuen. Mirenek ez zuen nahi, baina joan zen, triste joan zen baina ausartu zen.

Ettxera joan zenean, pianoa jotzen hasi zen. Aitonaz gogoratzen hasi zen, eta zenbat gustatzen zitzaion pianoaren soinua. Ondoren afaltzera joan zen eta lotara joan aurretik pianoari muxu eman zion. Lotara joan zen eta amets oso polit bat egin zuen: aitonarekin zegoela. Bat-batean esnatu egin zen negarrarengatik, baina berriro lo hartu zuen.

Hurrengo egunean, esnatu zenean, pianoarengana joan zen, baina pianoa ez zegoen eta korrika joan zen gurasoengana. Gurasoek esan zioten beraiek kendu zutela.

– Baina zergatik kendu duzue!!?? –Mirenek ez zuen ezer ulertzen...

Gurasoek esan zioten denbora gehiegi pasatzen zuela pianoarekin, eta Miren izugarri haserretu zen. Gelara joan zen korrika eta atea oso zakar itxi zuen: *PUUM!* Mirenen gurasoak oso gaizki sentitu ziren, eta Mirenengana joan ziren barkamena eskatzera:

– Laztana, ondo zaude?

– Aita, ama, joan!

Miren ez zen joan ikastolara, etxean gelditu zen bakarrik, eta ideia bat eduki zuen. Pianoa bilatzen hasi zen etxe guztitik, baina ez zuen aurkitzen eta konturatu zen begiratzeko leku bakarra falta zitzaiola: zaborrontzia. Zaborrontzira joan zen eta hantxe zegoen. Aho zabalik geratu zen pianoa zaborrontzian ikusi zuenean. Baina orduantxe aita iritsi zen etxera.

– Miren, non zaude?

Miren, aita entzuterakoan, logelara joan zen, isil-isilik.

– Aita, hemen nago, logelan.

Aita Mirenengana joan zen.

– Zer moduz zaude, laztana?


– Ondo, aita.

Handik gutxira ama etorri zen eta logelara joan zen. Berak ere galdetu zion ea zer moduz zegoen, eta Mirenek berdina erantzun zion:

- Ondo, ama.
- Ados, ba aita eta biok afaria egitera goaz –esan zuen amak.
- Ados, baina noiz esan behar zenidaten pianoa zaborretan zegoela?
- Maitea, ez pentsatu hori...
- Bai, ama, ikusi egin dut. Atera zaborrontzitik, mesedez. Zin egiten dizuet ez diodala hainbeste kasu egingo, baina mesedez, atera zaborrontzitik.
- Ados, laztana, baina orain afaria egitera joan behar dugu.
- Afaltzera, Miren!
- Mmmmm, ze afari goxoa, eskerrik asko! Sushia nire gogokoena da, eta oso ondo atera zaizu, aita!
- Badakit! Benga, Miren, lotara.
- Ados, aita, ondo lo egin!
- Amets onak egin, Miren.

Hurrengo egunean, Mirenek, esnatu zenean, irribarre handi bat zeukan. Gosaltzera jaitsi zen eta aita galdetu zion:

- Ondo egin al duzu lo?
- Bai, aita.
- Nabaritzen da.
- Zer dago gosaltzeko, aita?
- Zerealak esnearekin. Dutxatu al zara?
- Oraintxe noa.
- Miren, azkar, berandu goaz ikastolara!
- Oraintxe noa, aita.
- Miren, ondo jantzi, gero aitona agurtzera joan behar gara.
- Aitona agurtzera, baina nora?
- Hori gero ikusiko duzu. Lehengusina, lehengusua, amona, izeba, osaba eta gu joango gara, eta han ahalko zarete jolastu lasai.
- Benga, goazen ikastolara, aita. Urduri nago, inoiz ez dut pertsona bat agurtu.
- Zu lasai, amak eta nik lagunduko dizugu.
- Ama ere joango da?
- Noski, bere aita hil da. Benga, iritsi gara, kanpora. Agur, ondo pasa eta ez larritu!
- Ados, aita.



udane
2024

Mirenek oraindik bazuen tristura puntu bat, baina lagunekin eta gura-soekin konfiantza gehiago hartzen hasi zen.

– Ikastola bukatu da! –esan zuen Mirenek.

Aita eta ama joan ziren bere bila eta Mirenek galdetu zuen:

– Nora goaz?

Amak erantzun zion:

– Errenteriara. Goazen, familia zain daukagu eta.

Errenteriara iritsi zirenean, familia elkartu egin zen eta hitz egiten hasi ziren. Ondoren aitona agurtu zuten eta afaltzera joan ziren.

Mirenek jarraitzen zuen ezer ulertu gabe, baina bazekien triste zegoela eta bazekien beste guztiak ere triste zeudela, eta zaindu egin behar zituela. Etxera iristean Miren lotara joan zen, baina ezin zuen lo hartu, denbora guztian aitonarengan pentsatzen ari zen: nora joango ote da aitona?

Hurrengo goizean, gosaltzera jaitsi zenean, pianoa hor zegoen eta poz-pozik jarri zen, pianoa jotzen hasi zen. Handik aurrera, goizero-goizero, esnatzen zenean aitonari kanta bat jotzen zion, haren gustukoena.

Denborarekin, Mirenen tristura txikitu egin da, baina beti gogoratuko du aitona.

Katu, katu, aitonarekin gozatu.

Tximeleta



2. SAILA

PROSA

**AINHOA
IBARGUREN
ZUÑIGA**

NAIZEN BEZALAKOA NAIZ

Bazen behin neska bat Amaia izena zuena eta bi lagun zituen: Sandra eta Leire. Amaiak ile beltza zuen eta azal beltzarana. Bere gelako guztiek gorroto zuten beltzarana zelako. Sandra eta Leire ziren bakarrak ez zutenak gorroto. Jendea berekin gaizki portatzen zen eta Amaia gero eta tristeago sentitzen zen. Egun batean, esan zien Sandra eta Leireri ilea tindatu egingo zuela eta azala zuritu. Baina Leirek eta Sandrak esan zioten bera ondo zegoela bere azalaren eta ilearen kolorearekin. Baina Amaiak ez zien kasu egin eta ilea tindatu eta azala zuritu egin zuen.

Hurrengo egunean eskolako jendeak ez zuen Amaia ezagutzen. Amaia Sandra eta Leirerengana joan zen eta amaiak galdetu zien:

- Kaixo, neskak, ondo gelditzen zait?
- Ez, oso gaizki gelditzen zaizu! –esan zuen Leirek.
- Zu ondo zinen zu zinen bezala –erantzun zion Sandrak.

Eta berarekin haserre zeudela konturatu zen. Eta ulertu zuen bera ez zela horrelakoa. Orduan bere azal beltzaranera eta ile beltzera bueltatu zen.

Bitartean Leire eta Sandrak gelako lagunekin hitz egin zuten. Eskolako jendeari esan zioten Amaia beltzarana zela eta ezin zutela baztertu horregatik. Gainera, Amaiari ez zitzaiola gustatzen gaizki tratatzea. Eta eskolako jendeak esan zion ez zutela gehiago gaizki tratatuko.

Hortik aurrera ez zuen gehiago inork gaizki tratatu, Amaia zoriontsua izan zen bere ile beltz eta azal beltzaranarekin eta gelan oso giro ona egon zen.

Hala bazan edo ez bazan, gu ibili gara kalabazan.

Abeslari txikia



ndane
2024



2. SAILA

PROSA

**LAIA
MUJICA
CAMPESINO**

EGUN BATEAN


Zu jaio zinenean begietara begiratu eta irribarre bat atera zitzaidan. Zu besoetan hartu eta etxera joan ginen. Orduan, nire umea zinen eta orain nire haurra. Zure begiak distira erakusten duenean pozik jartzen naiz. Eskolan hasi zinenean oso triste jartzen zinen. Handitzen zindoazen araberaz ez zitzaizun inporta. Egun batean kirola egitera joan ginenean gaztainak hartzeko aprobe txatu genuen momentua. Orduantxe esan nizun:

- Gelditu.
- Zergatik? –erantzun zenidan.
- Begira hori –esan nizun.
- Zer? Ooooooooo! Ala! –esan zenuen.
- Gustatzen zaizu tokia? –galdetu nizun.
- Bai –erantzun zenidan.

Hainbeste gustatu zitzaizun toki hori, goizero joaten zinen ur-jauziak ikustera, txoriak entzutera eta gozatzeraz. Egun batean hil egin nintzen eta orduantxe negarrez hasi zinen. Zu ere zahartzen hasi zinen eta hiltzeko 2 aste falta zitzaizkizunean nitaz gogoratu eta ur-jauzietara joan zinen eta agurra eman zenidan.

Katu katu ipuina bukatu.

Txindoki



udane
2024



3. SAILA

PROSA

UMA
IRASTORZA
MUI



udane
2024

ESNEA!

Behin batean, baserri batean, behi bat, hiru behor, lau zaldi eta sei ardi bizi ziren. Baserriar bat ere bizi zen. Juanito izena zuen, eta ez zen ja-torra. Ezta pixka bat ere! Baserriak Juanita izena zuen, oso handia zen, eta Euskal Herrian zegoen. Itsasoa bezain handia zen belardi berde baten ondoan zegoen.

Udara zen, eta bero handia egiten zuen; hartaz, ume askok esne asko edaten zuten. Behi esnea. Behi esnea edaten zuten. Esnea ezta bezala-koa da umeentzako, bai. Oso goxoa da! Juanitok egunero 20 aldiz jezten zituen behiak. Eta badakizu zer gehiago egiten zuen? Zaldi eta behorren gainean haurrek bueltaxka bat ematen zuten, eta gurasoek Juanitori or-daindu egiten zioten. Zaldiek eta behorrek ez bazuten bueltaxka ematen hurrei, Juanitok ez zien janaria ematen aste osoan!

Ardiei egunero mozten zien ilea, eta ez bazitzairen azkar luzatzen, hil eta saldu egiten zituen Juanitok. Ardia ere egunero jezten zuen. Zein gaizki tratatzen zituen animaliak!

Egun batean, behiak ez zuen esnerik eman. Ezta hurrengo egunean ere! Ezta hurrengo hilabeteen ere. Badakizu zergatik? Ernari zegoelako! Juanito oso pozik jarri zen. Emea izango zen, eta orduan esne gehiago salduko zuen!

Aste batzuk geroago txekorra jaio zen! *Izar* izena zuen, eta aurreneko al-diz, txekor guztiak bezala, esnea edango zuen. “Txokolate beroa bezain goxoa da!”, pentsatu zuen.

Hasi da edaten eta... ez zen ezer ateratzen! Ez zegoen esnerik!

- Nola da posible? –galdetu du *Izarek*.
- Ez dakit, maitea... uste dut Juanitok esne guztia hartu didala...
- Zer?! Baina nik esnea edan nahi dut!
- Barkatu, maitea, ezin dut ezer egin!

Orduan esan zuen *Izar* txikiak konfiantzarekin:

- Ba nik zerbait egingo dut!

Egun hartan, *Izarek* esnea lortzeko plana pentsatu zuen. Protesta egingo zuten, eta orain etorriko da azalpena. Joan zen ukuilura eta animalia guztiei esan zien:

- Ni gaur jaio naiz, eta esnea edan nahi dut, baina Juanitok esne guztia hartu dio nire amari! Baina entzun, plan bat daukat! **PROTESTA EGINGO DUGU!**
- Baina nola egingo dugu hori? –galdetu zuen zaldia
- Begira... Ardia! Ez utzi Juanitori zure esnea hartzen! Ezta zuk ere, ama!
- Behorra eta zaldia! Ez utzi ume txikiei zuen gainean jartzen, horrela Juanitok diru asko galduko du!
- Oso ongi, maitea, uste dut zure plana ongi aterako dela! –esan zuen behi amak.

Eta badakizu zer? Behi amak arrazoia zuen. Ezin hobeto joan da plana!

Juanitok ez zuen dirurik lortzen, ezta animaliei janaria kenduta ere!

Juanito gaizki eta dirurik gabe ikustea ia- ia esnea bezain ona zen *Iza-rentzat!*

Plastikoz betetako itsasoa ikusita baino tristeago zegoen Juanito!

Azkenean, denborarekin behi ama berriro esnea ematen hasi zen!

Eta aurreneko aldiz esnea edan zuen *Izarek!*

- Iupiiiiiii! –esan zuen–, eguzkia bezain pozik nago!

DENA HARTZEN BADUZU, EZ DIZUGU GEHIAGO EMANGO

AMAIERA.

Pizza



3. SAILA

PROSA

**ELAIA
LASA
GELBENTZU**

NEREA ETA LIBURU GALDUA

Duela aste bat gertatu zitzaidana kontatuko dizuet, seguruenik ez duzue sinetsiko. Nire izena Nerea da, 14 urte ditut eta lotsatiegia naiz. Bi lagun bakarrik ditut, bat ikastolan eta bestea *Bat*, nire txakurra. Azken hori txikia nintzenetik egon da nire ondoan eta gehien gustatzen zaiona nirekin jolastea da. Nire beste laguna ikastolan popularra da, Eider. Ile horia duen neska eder horrek nahiz eta ez duen nire antzik, oso ongi moldatzen gara. Oso desberdinak gara, asko hitz egiten du, arropa koloretsuak janzten ditu eta mutil guztiak begira ditu.

Nire abentura ostiral arrunt batean hasi zen. Ikastolan Eider ikusi nuen beti bezala eta niregana hurbildu zen

- Zer moduz, Nerea? Zer liburu ari zara irakurtzen?
- Agatha Christieren bigarren nobela irakurtzen ari naiz oraindik –erantzun nion nik ahotsa askorik altxatu gabe.

Ondoren irakurketa saioa genuen. Eiderren eta bion irakasgai gustukoen!

Ikastolatik atera eta gero, errekarra joan nintzen. Errekan *Batekin* jolasen egon ondoren, egunero bezala irakurtzen hasi nintzen. Bat-batean, *Bat* hurbildu zitzaidan zerbait ahoan zeramala. Ahotik kendu nion eta zer zen begiratu nuen. Liburu bat zen! Irakurtzea asko gustatzen zaidanez, irakurtzen hasi nintzen. Urtaroei buruzko liburu bat zen eta irakurri


egin nuen. Liburu horrek eguna aldatuko zidan susmoa nuen. Azkeneko orrira iritsi nintzenean zerbait distiratsua nabaritu nuen marrazki batean. Orria ukitzen hasi nintzen eta zerbait bereziki gogorra ukitu nuen. Hobeto begiratu nuen eta diamante txiki bat zen. Liburua eta diamantea hartu nituen eta etxera joan nintzen. Nire aitari eman nion diamantea, arkeologoa baita. Aitak esan zidan ez zekiela zein diamante zen eta ziu-rrenik faltsua izango zela. Ni tristatu egin nintzen. Hala ere, diamantea ukitzen eta begiratzen egon nintzen, ea zerbait arraroa aurkitzen nuen. Horretan ari nintzela, diamantearen punta ukitu eta *BAM!*

Begiak ireki nituenean, ez nengoen nire gelan, beste leku arraro batean baizik, *Bat* ere hor zegoen nirekin batera. Han gizontxo bat ikusi nuen baina gizakia izateko oso txikia zen. Ipotx bat zela konturatu nintzen. Bat-batean, ipotxa gerturatu egin zitzaidan.

- Kaixo, urteak dira zain gaudela, urteak edon hobe esandan urtaroak! –esan zidan.
- Baina, nor zara zu eta non nago? –galdetu nion harrituta.
- Ez al dakizu non zauden? Ba urtaroen erreinuan zaude eta gure kaosa konpondu behar duzu. Lehenengo aurkeztu egingo naiz. Erreinu guztiek ipotx gidari bat dute eta ni naiz erreinu honetako ipotx gidaria. Gure arazoa hau da: ikusten duzu hemen dagoen puzzle moduko hau? Hemen lau diamante egon behar lirateke, urtaro bakoitzaren diamanteak. Baina urtaroen arimek lapurtu egin dituzte. Puzzle honek urtaroeke ordenan funtzionatzeko balio du, baina urtaroen diamanteak jarrita ez badaude, ez du funtzionatzen. Horregatik, urtaroen arimek diamanteak lapurtu dituzte. Era horretan, beren urtaroa ez du inoiz beste batek ordezkatzeko.
- Ados, baina zer egin dezaket nik arazo hau konpontzeko?
- Urtaro bakoitzak asmakizun bat asmatzeko eskatuko dizu. Kontuan izan urtaro horiek nahiko berekoi eta harroputzak direla –esan zidan ipotxak.

Momentu horretan ez nuen ezer ulertzen baina aurkitu nuen diamanteaz gogoratu nintzen.

- Galdera bat, badakizu zein diamante den hau? –eta poltsikotik atera nuen nire diamantea.
- Bai, jakina! Neguaren diamantea da, urteak dira galduta zegoela, ho-



udane
2024

rregatik azken urteetan ez du elurrik egin. Eskerrik asko diamantea hona itzultzeagatik! –erantzun zidan ipotxak pozik–. Udazkenaren erreinua hortik dabil, hor egongo da lehenengo diamantea.

Segituan abiatu nintzen eta *Bat* nire atzetik etorri zen. Oinez minutu batzuk igaro eta gero, udazkenaren erreinura iritsi ginen. Bertan, dena udazken giroan zegoen. Zuhaitz artean etxetxo bat ikusi nuen eta han sartzea erabaki nuen. Barruan udazkenaren arima zegoen eta haize ufa-da batek kanpora bota ninduen. Udazkenaren arimak hostorik gabeko zuhaitz baten itxura zuen. Berriro sartzea erabaki nuen, eta oraingoan lortu nuen.

- Nire diamantea nahi duzu, ezta? Galdera honi ongi erantzuten badiozu bakarrik emango dizut: nor da urtarorik indartsuena?
- Zu, zu zara, ene udazken gorria –erantzun nion.

Orduan udazkenaren arima desagertu egin zen eta diamantea lurrera bota zuen. Nik diamantea lurretik hartu eta beste erreinu batera abiatu nintzen. Bidean zeuden karteiei jarraituz, udaberriaren erreinura iritsi nintzen. Bertan, dena lorez beteta zegoen. Han ere etxetxo bat ikusi nuen. Etxetxoan sartzeraikoan udaberriaren arima ikusi nuen, lorez betetako zuhaitz bat zen. Udaberriko arimak honako hau galdetu zidan:

- Nor da urtarorik ederrena?
- Zu, zu zara, ene udaberri loratua –erantzun nion.

Udazkeneko arimarekin gertatu bezala, udaberriko arimak alde egin zuen diamantea han utzita. Diamantea hartu eta udaren erreinura joan nintzen. Udaren erreinuan bero ikaragarria zegoen eta han ere etxetxo bat ikusi nuen. Sartzeraikoan udaren arima ikusi nuen. Udaren arimak eguzkiaren itxura zuen. Berak egin zidan galdera erantzuteko oso erraza izan zen.

- Nor da urtarorik boteretsuena?
- Zu, zu zara, ene udara indartsua –erantzun nion nik.

Galderari erantzun ondoren, diamantea lurrera bota eta alde egin zuen. Ipotxarengana itzuli nintzen. Ipotxari esan nion arrazoi zuela, urtaroak oso berekoiak eta harroputzak zirela. Erreinuko arimek egin zizkidaten galderak haien indarra azpimarratu, boterea erakutsi eta euren burua

goraipatzeko izan ziren. Ipotxak arrazoia eman eta gero, eskerrak eman zizkidan egindako lanagatik. Jarraian, diamanteak puzzle modukoan jarri zituen. Baina lehenengo betaurreko arraro batzuk janzteko aholkatu zidan, izan ere, puzzlea osatzekoan argi izpi erraldoi bat agertuko zen eta itsu gera nintekeen. Diamanteak bere lekuan jarri zituenean, berriro ere *BAM!* bat entzun zen. Bat-batean, nire gelan agertu nintzen. Gurasoei kontatu nahi nien gertatu zen guztia, baina pentsatu nuen hobeto izango zela inori ez kontatzea, ez zidaten sinetsiko eta.

Oraindik gertatutakoa sinetsi ezinik nago eta aldaketa klimatikoari buruzko ikerketa bat egiten hasi naiz. Urtaroen erreinuko arazoa konpondu nuenetik egoera pixka bat hobetu den arren, aldaketa klimatikoa gure esku dagoela konturatu naiz. Hori dela eta, aldaketa klimatikoaren inguruko kanpaina bat egiten ari naiz herri osoan, natura zaintzeari buruzko kartelak jarritz. Eider nirekin kartelak jartzen ibili da eta bere lagunak ere bai. Era horretan, gero eta jende gehiagorekin harremantzen hasi naiz. Eta badakizue zer den hoberena? Irakurketa klub batean sartu naizela Eiderrekin. Eiderrek hain lotsatia ez izaten erakutsi dit eta orain askoz hobeto pasatzen dut ikastolan.

Baina ez ahaztu, natura zaintzea gure esku dago.

Negu zuria



4. SAILA

PROSA

**LOLA
RAMOS
MARTINEZ**

BETIRAKO

Euria. Euriaren soinua... Betidanik izan dut euriarentzako toki bat bihotzean. Gaur, euri tanten kantuek esnatu naute. Ez dut zereginik. Helmu-garik ez, eta norabiderik ere ez. Gaurko eguna bezalakoak ditudanean, betebeharrak faltak ez nazan etxean egotera kondenatu, kalera ateratzea maite dut. Kaleko atetik atera baino lehen, ama ikusi dut sukaldean. Ama agurtu, eta atea poliki ireki dut, eta nahiz eta ez dudan gehiegi sumatu, haizeak arnasterakoan birrikak mintzen dituen horietakoa dirudi. Hotza. Etxetik atera naiz, ahalik eta soinu gutxiena ateratzen. Isilik...

Isiltasunez blai daude kaleak ere. Euriaren hotsa da isiltasunaren oztopo bakarra. Gauza da eguzkiaren urre koloreko pintzelek marrazki ederrak sortzen dituztela eraikinen paretetan gaur. Nahiz eta nire kalea txikia nintzenetik ezagutzen dudana, beti jarraituko nau harritzen haren edertasunak. Esango nuke jada ez dela hain goiz, goizero errepikatzen den desfilea hasia da eta. Ez zait askorik gustatzen jendea, askotan niri erokeria hutsak iruditzen zaizkidan gauzak egiten dituztelako. Baina egiaz, haiekin egon nahi dut eta ezinean nabil. Ahalegintzen naiz, baina haien tzat gardena naiz, ahulegia. Agian ez nuke hainbeste kezkatu beharko... Baina baditut asko maite ditudan pertsonak ere, nahiz eta beraiek ere maite nautela sinestea zertxobait kostatzen zaidan batzuetan. Atera diren lehenak, langileak, haien lanpostuetara presaka. Oinak lurraren gainetik pasatzerakoan ateratzen duten soinua da haiek datozen seinale. Langileak ikusten ditut, eta ezin diot utzi ea bakoitzaren lana nolakoa den pentsatzeari. Nork daki nora doazen eta zer egitera... Eraikin bate-



udane
2024

ko azken pisuko bulego batera, nik ulertzen ez ditudan gauza “serioak” egitera. Gaixo dauden pertsoneri laguntzera. Ala imajinatu ere ezin du-dan lan itsusi bat egitera... Langilea ez izatea eskertzen dut. Goizeroko desfileari txakurrak eta haien jabeak gehitu zaizkio ikasleekin batera. Ikasleak, txikiak nahiz handiak, erdi lo daudela, begiak hutsik dituzte-la, eskolako autobusera igotzen dira. Ikaslea ere ez izatea eskertzen dut. Txakurrak, berriz, ikasleen kontrara, energiaz goraino doaz kaletik; bes-te txakur batzuk ezagutzeko, txorien atzetik korrika ibiltzeko, edo kalean aurkitu ditzaketen usain guztien bideei jarraitzeko. Jabeek ikasleen antz handiagoa dute txakurrena baino. Haiekin bukatu da gaur goizeko des-filea.

Konturatu naiz egun osoa daramadala banku honetan eserita. Arratsaldea da eta goizeko hainbat pertsonaia haien etxeetara bueltatzen hasiak dira. Euriak haren lana egiten ere bukatu du. Norbait eseri zait ondoan. Egia esan behar badut, pertsona baten presentzia sumatzeko gogoz nengoan, arraroa ematen badu ere. Ez naiz batere mugitzen, eta pertsonaren ezaugarri guztiak aztertzen ditut. Nahiz eta hiriko soinuek guztia betetzen duten, ez dut ezer entzuten, liluratua geratu naiz. Pertsona hau ere txikitatik ezagutzen dut. Nire laguna. Nire laguna zen... Oraingoan ezin izan ditut nire eskuak gelditu, eta nire eskuineko eskua bere eskuaren gainean jarri dut. Bere erantzunak ez nau harritu, horrelako bat egin nuen azken aldian erantzun berdina jaso nuelako. Nire lagunak eskua suge baten antzera astindu du, hotzikara batez. Ez du ezer esan. Ez da berriz mugitu. Baina nik ezin diot begiratzeari utzi, berak niri begirada bueltatzen ez badit ere. Bere begiak, bere ilea... Aurpegi ezezagunez nazkatuta nabil, eta bere ezaugarriek berriz bizi ezingo diren oroitzapenak ekartzen dizkit gogora, eta denboran atzera egitea da nire nahi bakarra. Beraz, berarekin batera geldirik geratzen naiz. Bizitza paraleloak ditugu momentu honetan. Denboran korapilatu naiz, eta nire laguna bankutik altxatu eta hiria den labirintoan barrena murgildu da. Nahiz eta badakidan ez nukeela egin beharko, sentimenduek hartu dute nire gorputzaren kontrola.

Beraz, hemen nago. Lagun zahar honen atzetik hiriko kaleetan dantzan. Nire buruarekin haserre nago, pixka bat, agian etxera bueltatzeko erabakia hartu izan banu momentu honetan ez nintzatekeelako arriskuan egongo. Baina pentsamendu horrek bakean utzi nau nire aurrean nuen neskari erreparatzean.

Nahiz eta amaren falta sumatzen dudan, badakit bera ondo dagoela etxean, familiaz inguratua. Pozik. Gainera, gogoratzen dut ama berrakatzan saiatu nintzen egun hartaz. Egongelan zegoen, nire argazkia eskuetan zuela. Bere masailak ur-jauziak ziren, eta bere negar zotinek etxea astintzen zuten. Hain gaizki sentitu nintzen... Errudun agian. Triste agian... Badakidana da nire eztarria eta tripak bata bestearekin lotuak zeudela, eta momentu hartan eskuak ezin izan nituela gelditu, eta berrakada sakon bat eman niola. Amak negar egiteari utzi zion. Begiak ilargi bete bezain handiak eta distiratsuak zituela, baina ez zuen ezer esan. Momentu hartan ere errudun sentitu nintzen. Errealitatera bueltatu naiz. Nire azpian bidegurutzeko marra zuriak topatu ditut, eta neskari begiratzeko burua altxatzean... Nire bizitzan entzun dudan soinurik ika-

ragarriena eta itsusiena eta tristeena eta entzuteko zailena den soinua entzun dut. Nire lagunak atera duen soinuak nire barru guztiak puskatu ditu, mailu batek ispilu bat puskatuko balu bezala. Nire aurrekoa lurrian ikusten dut. Hain zaurgarri. Konturatzen naiz pertsonak nire barneak bezala erraz hausten direla, eta momentu batetik bestera, jauzi eta berriz ez igotzera behartzen dituela unibertsoak. Kalea zarataz goraino dago, goitik behera, ezker-eskuin. Kalekoek nire lagun maitea lagundu dute, eta konturatu naiz pertsonak beste pertsonon barneak konpontzen saiatzen direla, beraien barneak puskatzearen ideia gorroto dutelako, agian. Beraz, hemen nago, ospitaleko ohe baten oinean. Nire lagunaren zain. Min asko sortzen dit nire laguna ohe horretan etzanda ikusteak. Bere irudiak labana batek bezala nire azalean marrazten du. Baina orain nire atzean dago, haren gorputza gure aurrean badago ere. Bat-batean min guztia xurgatu dit hark. Azkenean... Bakardadean egon naizen 5 urteren ondoren... Bera nuen kide. Nahiz eta beste inor ez eduki. Nahiz eta inoren ukimena ezin nuen sentitu... Bera nuen. Eta berak ni. Lehen bezala, eta betirako. Bere begiak izuz beterik daude, baina baita pozez ere. Besarkada hotz batean murgildu gara biak, eta maite dugun jendea ikusi dugu, jada haren arimaz agurtu den gorputza agurtzen. Beraien negar zotinek ere ospitalea astintzen dute.

Astindu, astindu, astindu... Astintzen jarraitzen du munduak, eta gu biok harekin astintzen jarraituko dugu, elkarrekin, mamuak garelako eta izango garelako. Betirako.

– Bai

Norbait



4. SAILA



PROSA

**JUNE
MACAZAGA
GARATE**

BETI EGONGO ZARA NIREKIN

Uda bukatu da, eta urtero bezala ikasturtea hastear dago, baina orain-goan dena desberdina da, zu jada ez zaude nire ondoan eta zure hutsu-nea sentitzen dut. Zu beti izan zara nire babeslekua, beti izan zara nire ekaitz guztietako lasai unea.

Txiki-txikia nintzenetik, indartsua nintzela errepikatzen zenidan behin eta berriz, edozer arazori aurre egin behar niola, bizitza bakarra dela eta ezin zaiola beldurra eduki. Pasa dudan uda gogor honetan, hitz horiek behin eta berriz etorri zaizkit burura, baina ez naiz gai izan pasa den guztia onartzeko. Indartsua izango naiz, baina orain ahul sentitzen naiz, INOIZ baino ahulago.

Gaur, ikasturteko lehen eguna izan dut. Zure falta lehenengo momentutik sumatu dut. Gelan bakarrik eseri naiz, eta patioan izkina batean bakarrik egon naiz. Ez zait inor gerturatu egun guztian. Etxera iristerakoan, motxila utzi eta joan zinenetik egunero egiten dudan bezala, zuretzat idazten hasi naiz. Zuretzat izango den eskutitz bat idazten dut.

Egunero idazten dizut, nahiz eta aitak errepikatzen didan alferrik dela, baina nik badakit egunero iristen zaizkizula nire eskutitzak, egunero irakurtzen dituzula.

Jada hiru aste pasa dira eskolan hasi ginenetik, baina lehenengo eguna balitz bezala sentitzen dut. Klasean bakarrik eserita jarraitzen dut eta



udane
2024

patioetan ere bakarrik nago. Gaur, patiotik bueltan gelara joaten ari nintzela, pasilloan erori egin naiz, baina altxatzeko saiakera egin dudanean, pasilloa hutsa zegoen. Erori nintzen azkeneko aldian, zu zinen hor, baina denbora pasatu da, orain dagoeneko ez dut inor.

Orain dela hilabete hasi ginen eskolan, baina oraindik ez naiz gustura joaten, zure falta sumatzen dut, eta asko, gainera. Bakarrik sentitzen naiz, ikusezin. Baina beste momentu batzuetan denek ikusten naute. Hori ez da nik nahi dudana, nik lasai egon nahi dut, nik berriro neu izan nahi dut.

Patioan, izkina batean bakarrik nagoenean, ez zait inor gerturatzen, izan ere, inori ez zaio axola gelako pertsona isil eta arraroa nola dagoen. Batzuetan, ikusezina naizela pentsatzen dut. Baina gelako mutil indartsuena hamaiketakoa kentzera etortzen zaidanean, denek ikusten naute. Momentu horietan, mundua erortzen zait gainera. Momentu horietan, ihesean atera eta zurekin joan nahi dut.

Gaur afarian, aitarekin hitz egiten egon naiz azken bost hilabeteetan gertatu den guztiaz. Zu joan zinenetik, gauzak asko aldatu dira etxean. Aitak ez nau ongi ulertzen, edo hobeto esanda, ez nau ulertu nahi. Ez dut inor, bakarrik nago.

Atzo eskolan, zuretzat idazten ari nintzela, nire ikusezin izatearen gaitasuna desagertu omen zitzaidan. Bat-batean, gela guztia inguruan nuen. Momentu batetik bestera, bizitza honetan jarraitzeko gogoa joan zitzaidan. Hitz magiko horiek entzun nituenean, bihotza mila zatitan hautsi zitzaidan. “Zertarako idazten diozu, bera jada ez dago hemen. Ahaztu ezazu, EZ DA BUELTATUKO”. Hori entzun nuenean, negar batean hasi eta korrika atera nintzen.

Masailean zehar malkoak erortzen zaizkidan bitartean, korrika jarraitzen dut. Ezin dut gehiago. Zurekin egon nahi dut. Zerbaitekin tupust egin dut, dena beltz ikusten dut!

Ez dakit non nagoen. Esku bat sumatzen dut nireari heltzen, ez dakit zein den, baina oso gustura nago. Konturatu naiz zu zinela, eta beti egin duzun bezain goxo begiratu didazu. Zure besoetara bota naiz, negar batean. Eta zenbat maite zaitudan esan dizut. Zuk, berriz, ez zenuela denbora

asko esan didazu. Ondoren, beti egin duzun bezala, oso indartsua naizela eta nire beldurak atzean utzi behar ditudala errepikatu didazu. Agurtzeko, zure muxu goxo horietako bat eman didazu masailean. Joaten hasi zarenean, nire eskutitzak oso gogoko dituzula esan didazu, egunero irakurtzen dituzula, eta poliki-poliki, urruntasunean desagertzen joan zara.

Esnatu naiz jada, ospitaleko gela batean. Baina oraingoan, begiak ireki eta ez zaitut ikusi. Segituan, erizain bat etorri zait, eta galdera pila bat egiten hasi zait. Ez naiz ezertaz gogoratzen, ez dakit zer gertatu zaidan. Zuk esan dizkidazun hitzak eta muxu goxo hori bakarrik dut buruan. Beste guztia berdin zait.

Gaur, nire lehen urtebetetze eguna izan da zu gabe. Eta egia esan, pena handia ematen dit zurekin batera ez ospatzeak. Egia esanda, oraindik ez dut gaingitzen. Baina gaurko egun zoragarrian, indartsu eta gogotsu altxatu naiz ohetik. Zuk beti nahi izan duzu ni alai egotea, eta badakit hor nonbaitetik, orain, ni ongi egotea nahi duzula. Eta horrela izango da. Zuk, nire bizitzan, egunero maite eta lagundu izan nauzu. Orain nire momentua iritsi da, bizitza bakar eta zoragarri hau biengatik biziko dut. Biak batera pasatu genituen momentuak oroitzen eta bizitzeko falta zaizkigun beste guztiak bizitzen.

Gaurko eskutitza berezia izan da, gaurkoan ez dizut nire eguna kontatu, ezta eskolan gertatutako arazorik azaldu ere. Gaurkoan, eskerrak eman nahi dizkizut, izan ere, zu izan zara bakarra momentu on zein txar guztietan egon zarena. Beti eskaini didazu zure laguntza gaizki nintzenean, baita zure denbora ere ongi nintzenean. Nahiz eta zu gaizki egon, beti saiatzen zinen zure irribarre distiratsu hori zure aurpegitik ez desagertzen, ni beti ondo egon nendin. Eta gaurko egunean, ni naiz zuregatik hori egingo duena, ni naiz zure heriotza gaingitzen saiatuko dena, ni izango naiz egunero irribarre bat ateratzen duena zure antzera, eta ni izango naiz egun bat bestearen atzetik errepikatuko dizuna beti nire bihotzean jarraituko duzula. Egon zaren urte guztietan, zaindu eta niretzat hoberena nahi izan duzu beti, eta badakit oraindik, zerutik egiten jarraituko duzula. Egunero eskertuko dizut egindako guztia. Maite zaitut, ama.

Patata frijitua



4. SAILA

PROSA

UDANE
BEREAU
CORTAJARENA

DENA EZ DA TXARRA

Nire senargaiaz maitemindu naiz eta ez dakit nola esan. Kaira dut izena eta Indiako herrixka batean jaio nintzen. Gure kulturaren, gurasoek erabakitzen dute alaba edo semea norekin ezkondu. Esate baterako, nire gurasoek ez dute elkar maite eta oso gutxitan hitz egiten dute elkarrekin. Aitak ama jotzen du baina nire lurraldean beti horrela izan denez, amak lurrera begiratu eta onartu besterik ezin du egin. Betidanik jakin izan dut gurasoek ez dutela elkar maite baina niretzat eduki ditzakedan guraso onenak ditut. Txikitatik gorroto izan ditut bikoteak, sentitzen dudalako norberaren askatasuna murriztu eta desagerrarazi egiten duela. Horregatik, nire gurasoak zoriontsu dira elkar ikusi arte, arazoa da biak solairu berean egonda beti edukitzen dutela gatazka baterako aitzakia.

Oso pozik bizi izan naiz txiki-txikitatik. Izan ere, beti momentu guztiak gozatzen saiatu naiz, halaxe irakatsi didatelako etxekoek. Nire gurasoek oso heziketa ona eman didate jaio naizenetik. Beraiek beti esaten zidaten edonorekin egonda ere gozatzen saiatzeko, ez dakigu-eta momentu txarrrak noiz iritsiko diren, horregatik onak ahalik eta gehiena gozatu behar dira.

Inoiz ez nuen ongi ulertu esaldi hori, momentua iritsi zitzaidan arte. 18 urte bete nituenean, nire gurasoek Arnav izeneko mutil batekin ezkontzera behartu ninduten. Behartua izan nintzenez, protestatzea alferrik zen. Beraz, ezkondu egin nintzen, nire zoriontasunaren aurka.



udane
2024

Ezkundu eta gurasoengandik urrun joan ginen: horrela, Arnav eta ni elkarrengandik urrun egonda ere gurasoak ez ziren ezertaz ohartuko. Zorionez, nahiz eta derrigorrez elkarrekin bizi behar genuen, norberak bere bizia egin zezakeen. Horretarako, lana aurkitu behar nuen eta etxe bat garbitzen hasi nintzen Arnavek egin zuen bezala.

Etiket kanpo pasa nuen lehen urtea nire bizitzako esperientziarik gogorrena izan zela esango nuke. Batez ere, gurasoengandik urrun nengoelako, ezagutzen ez nuen beste herri batean, eta, garrantzitsuena, maite ez ninduten pertsonen inguratua.

Urteak pasatu ahala, egunerokotasun batean zereginak sortzen hasi zirenean, denbora gero eta arinago igarotzen zen. Lagunekin hitz egiten ere hasi nintzen mugikorren bitartez, eta haiek ziotenez, beraien bikotekideek jo eta tratu txarra ematen zieten. Momentu hartan ohartu nintzen Arnavek ni ez ninduela jotzen, ezta gaizki hitz egiten ere. Pentsatzen hasita, lagunak bagina bezala tratatzen genuen elkar. Zorte bikaina eduki nuela pentsatzen hasi nintzen nire gurasoek Arnav aukeratu zutelako eta ez beste inor.

Egun hartatik aurrera, nik ere elkarrekin hobeto moldatzeko saiakera egin nuen. Biok elkarri tratu goxoagoa ematen hasi, eta gure harremana hobetzen joan zen. Elkarrekin genuen konfiantza areagotu egin zen.

Egunak eta hilabeteak pasatu ziren, eta gertatzen zitzaizkigun gauzak, sentitzen genituen gauzak, partekatzen genituen. Momentu batean, norbaitengan konfiantza izan banezakeen, harengan zen. Niretzat bera erekin hitz egitea gotorleku batean sartzea bezala bihurtu zen, sartu eta munduko astakeria handiena esanda ere lasai egon nintekeen ez zela bertatik irtengo.

Otorduro irribarre handiak ateratzen zizkidan, eta elkarrekin algaraka pasatzen genituen orduak. Egun batean, berriz, lo hartu baino lehen hizketan ari ginen bitartean, honako hau esan zidan:

- Kaira, beste emakume batzuk ezagutzeko baimena emango zenidake? Nahi izanez gero, zuk ere beste gizon batzuk ezagutzeko baimena emango nizuke. Gu biok paperetan bikote gara, baina errealitatean lagunak besterik ez garenez, nik nire bihotza betekoa duen emakumea aurkitu nahi dut. Zer diozu?

Baimena eman nion, momentu hartan ez zitzaidalako askorik axola berak beste emakume batzuk ezagutzea, nahiz eta nik garbi nuen ez nuela beste inor ezagutzeko asmorik.

Lehenengo emakumea ekarri zuen etxera, eta nire barruan zerbait sentitzen hasi nintzen jelskor banengo bezala. Emakume bera ekarri zuen etxera behin baino gehiagotan, eta orduantxe ohartu nintzen maitemindu egin nintzela, ez zitzaidan gustatzen beste batzuekin ikustea eta nirekin denbora gehiago pasatzea gustatuko zitzaidakeen. Faltan sumatzen nuen.

Onartu nuen beragatik sentitzen nuena, baina ez nengoen prest Arnovi ezer esateko. Egia esatea burutik pasatzen zitzaidan bakoitzean, galdera asko sortzen zituen nire barrenak; zer esango ote dit? Niregatik ezer sentituko al du? Nola jakin dezaket? Arnov-ek emakume bera etxera ekartzen jarraitzen zuen, eta hark errurik ez zuenez, berarekin jatorra izatea erabaki nuen.

Arnav eta emakumeari afari polit bat prestatuko niela esan nion. Lehen esan bezala, azken finean, ez zitzaidan elkarrekin ikustea gustatzen, baina neskak ez zuenez inongo errurik, ez nuen nire haserreak berak ordaintzerik nahi. Mahaia prestatu eta biekin hitz egiten egon nintzen, oso dibertigarria izan zen, baina biak bakarrik utzi behar nituen beraien afaria zelako, ez nirea.

Egun hartatik aurrera, Arnov-ek ez zuen emakume hori gehiago etxera ekarri. Egun batean etxe guztia arrosaz betea ikusi nuen arte. Niretzat prestatu zuen hori dena! Afari moduko bat prestatu zuen biontzat bakarrik. Bikain pasatzen ari ginen ondorengoa galdetu nion arte:

– Zertara dator hau, Arnov?

Hau izan zen bere erantzuna:

– Zuretzako egin dut, zugatik sentitzen dudana adierazteko. Kaira, zure jarrerak guztiz maitemindu nau. Emakume harekin eduki zenuen jarrrera izugarrizkoa iruditu zitzaidan, inondik ezagutzen ez duzun emakume batekin ze ongi pasatzen zenuen ikusteak bihotza bete zidan. Eta egun hartatik aurrera bestela begiratzen hasi nintzaizun. Nire benetako bikotekidea izan nahi?

Bi aldiz pentsatu gabe, izugarrizko besarkada eman nion, nik ere berdina sentitzen nuela esanez. Gaur egun ume bat dugu, eta zoriontsu gara hirurak. Beraz, egia izango da esaten dutena, momentu gogorren atzetik momentu goxoak datozela. Urte edo egun txarretan aurrera jarraituz gero, beti bukatuko dira gustatzen ez zaizkigun etapak, eta hortik aurrera gozatzea besterik ez da gelditzen.

Borragoma



5. SAILA

PROSA

**KATTALIN
ARABOLAZA
PALOMO**

ZAURIAK EZ DIRA ITXI

Irratia piztera altxatu da aitona. Belaunzurrek dar-dar egiten diotela, etsipenezko hasperenez, esku bat gerriaren atzealdean jarri eta pauso baldarrean irrati zaharraren apalera hurreratu da. Bizkarrak zubi itxura hartu zion duela dezente, makur-makur ibiltzen da. Ezina ikusten da bere begien bestaldean. Egunik egun iluntzen doazen kanika urdinek ez dute gehiago ikusteko gogorik. Beharrik ere ez dute, agian: denetik ikusi dute jada. Aitona eserita zegoen besaulkiak sekulako arindua hartu du zama hura gainetik kenduta, eta arratsalde osoan lehen aldiz arnasa hartuko balu bezala, hondoratutako kuxina pixkanaka bolumena hartzen joan da. Neguan, ia arratsaldero joaten natzaio bisitan. Beti ez zait barrutik irteten, baina gurasoek ez didate inoiz barkatzen. Zera errepikatzen dute aldiro, bakarrik bizi dela eta oso pozik hartuko duela konpainia kontu kontari aritzeko. Azken horrekin ados nago: ur azpian ere isiltzen ez den horietakoa da aitona, eta ezin ditu bost segundo igaro ahoa itxita. Ni testigu.

Aitonak beti hartzen du besaulkia bertan esertzeko. Niri ez zait horren erosoia egiten, nahiago izaten dut sofan etzanda pasatu orduak. Halaxe nago, sofa osoa niretzat hartzen dudalarik, hauspez etzanda. Honako bidean, erdiraino busti zaizkidan harizko galtzerdi lodiak sutondoan eseki ditudanez, zimurtutako oin biluziak luze-luze eginda dauzkat. Ez dut horiek estaltzeko beharrik, tximiniaren aire epela zabaltzen baita etxeko txoko guztietara. Esku barrenetan pausatu dut burua, karga osoari lepoarekin eusteko nekatuegia nagoelako. Gorritutako masail beroak nola altxatzen zaizkidan sentituz, egongelaz haratago zuzendu dut begirada.

Leiho bat dut parez pare. Euria ari du goian-behean. Haizeak gogor bulztzatak euri tantek ezker-eskuin bidaiatzen dute zero grisean barrena, kristalaren aurka talka egin eta mantso-mantso irristan jausten diren arte. Polita da zaparradaren doinua entzutea, polita kalea erabat bustitzen ikustea. Polita da hori guztia leihoaren barnealde honetatik begirata, sutondo goxo honetatik.


Klak. Irratia piztu du aitonak. Nire baitatik irtenarazi nauen burrunba ezatsegin bat entzuten da. Autoetako irratiek tunel barruetan egiten duten soinua dirudi, esatariaren ahotsa ongi bereiztea zail egiten den horietakoa. Ohiko modura, aitonak antena kontuz luzatu du, seinalearen bila. Erantzunik ez. Eguraldiak ez du laguntzen nahi beste, eta ohi baino gehiago kostatzen da esaten ari direna ulertzea.

– Traste zahar hau... bota egin beharko dugu azkenean. Errazagoa da zure telefono hori erabiltzea honekin jardutea baino.

Marmarrean ari da aitona. Gauzak gaizki irteten zaizkionean horrela mintzatzen da. Bere onetik irteteko ez zaio asko falta, eta laguntzera jaiki naiz. Segituan lortu dut ahotsa jartzea zurrumbilo hari eta berriz hasi du barne gudua, bere buruarekin haserre. Belarrez ere ez dabil oso trebe, eta izugarri igo behar izan dut bolumena guztia garbi entzun dezan: “belarri handiak bai, alfer-alferrik”, beti aritzen gara brometan.

Goitik agindua eman / fusila eskutan hartu (...) aitonari begiratu diot eta hark niri. Badakigu zertaz ari garen. Txikiagoa nintzela, sarritan kantatzen zizkidan bertsook, eta nahi gabe edo, buruan iltzatu zaizkit. Aitonari betidanik gustatu izan zaio bertsotan aritzea; oroitzen dut familia bazkarietan nola hasten zen kantuan sagardoz muturra berotu ostean. Niri debekatu egiten zidaten hori edatea, noizean behin ezpainak bustitzen uzten zidaten, eta orduan bai, hura ilusioa nirea! Halere, tarteka, aitonaren ondora esertzen nintzen, banekielako hark ezkutuan eskainiko zidala tragoren bat edo beste.

Gerraren gogortasuna / txikitatikan probatu (...), bere ahots urratu horrekin letra jarraitzen hasi da aitona, eta nik ere ekin diot leihotik bestaldera begirada galtzen nuela. *Frenteko lehen lerroa / ederki nuen gozatu / etsaia ala laguna / aurrekoa tirokatu (...)*. Berriz begiratu diot aitonari. Bere karnika urdinak nola hezeten diren ikusteak korapiloa egin dit eztarrian,



udane
2024

norbaitek eztarria estutu eta hitzak ateratzea eragotziko balit bezala da. Oroitzapenen armairua ireki eta nostalgiak hartu du. Izan ere, oso ongi daki zer den gerra. Oso ongi daki zer den lagunak akabatzerara behartuta egotea. Hori guztia bere begiz ikusi du, hori guztia bere azalak sentitu du. Hori guztia ez dute ahortzi bere gerrako zauriek. Erraz hitz egiten dugu orain gerra zibilaz. Gaurtik oso urrun ikusten dugu, iraganaren hondoan egongo balitz bezala. Han nonbait. Ez gara ohartzen, ordea, gure aurreko belaunaldiak “han nonbait” hori euren buruetan gorde dutela betiko. “Han nonbait” hori euren bizitzen parte izan zela eta dela.

18 urte soilik zituenean hasi omen zitzaion amesgaiztoa. Euskal Herrian frankistak sartu zirenean, hain zuzen. Francok kate motzean lotu zuen, beste hainbaten antzera. Bai, aitonak frankisten alde egin zuen apustua. Tira, ez zen hark nahi zuelako izan. Etxekoek hala nahi izan zuten, semea bizirik irteteko bide segurua zelakoan edo. Euskaldunen alde eginda, hain talde txikiak, hain talde ahulak, ez lukeelako denbora luzean babestuko. Bihotzak eta buruak herriaren alde egiteko esaten bazioten ere, familiak etsaiengana bideratu zuen. Bere lagun batzuek ihes egin zuten etxeetatik, infernu horretatik ihesi, eta ez omen ditu ordutik gehiago ikusi. Ziurrenik, bere taldekoen eskutik hilko ziren, herrian geratu ziren besteen gisan. Lo aurreko uneak negarrez igarotzen zituen. Gorrotoa zion bere buruari. Traidoretzat zuen bere burua. Gaztelerarik jakin gabe, armada frankistaren parte izatea zer izango zen ba, bestela? Herriari traizio egitea, besterik ez. Min egiten zion gorri-hori eta berdez mozorrotzeak. Bere ile motz eta bibote txikiarekin ez zen ongi sentitzen. Lotsa ematen zion ispiluan begiratzeari ere. Kristalak islatutako hura ezagutuko ez balu bezala zen. Halere, eskuetan arma hartuta ezin zuen beldurrik azalera eraman. Antzerkia egitea zegokion. Ausart eta harroputzaren papera egokitu zitzaion, beste militar espainolek egiten zuten antzera. Beno, haiek antzerkirik ez zuten egiten, nazkagarri hutsak ziren izatez. Baina aitonak haien eran jokatu behar zuen. Ezagunak tirokatu eta, deus pasako ez balitz bezala, hurrengoaren bila joan. Gustura asko akabatuko luke alboko militarra euskaldun gaixo haiek beharrean. Ezin zuen ordea: edo agindutakoari tiro, edo tiroa hark jasoko zukeen.

Dioenez, oraindik ere ez dio bere buruari barkatu garai hartakoa. Eta ez dut uste barkatuko dionik: burugogorra da oso. Sarritan errepikatzen du, norbait mindu bazen, bera izan zela lehena. Ez dakit ongi zer den zama hori bizkar gainean eraman behar izatea. Bizitza osoa etengabeko karga bati lotuta. Lotarakoan ere ezin izaten du deskantsatu, amesgaiztoek behin baino gehiagotan esnatzen dutelako. Ez dakit zer den, baina imajina dezaket.

Mendian gora ta behera / han ezin gendun nekatu (...). Euskaldun ugari, frankistek euren herria garbitzen zutela ikusirik, inguruko mendietan babesten ziren, eurak ziren-eta inguru horiek ongien ezagutzen zituztenak. Baina gorri-horia ez ziren inozoak, eta euren armadan zeuden euskaldun apurrak bidali zituzten mendiak miatzera. Aitona barne. Kontatu izan dit goizetik gaueraino ibiltzen zirela mendi-tontor, baso, koba eta

bunkerretan bueltaka. Korrika, batera eta bestera. Lurrean gorpu hilak eta odol arrastoak ikustea normala zen, eta horien gainetik pasatzeak askori ez omen zien errukirik ematen. Aitonari bai: aldiro begiratzen zuen ea ezagunen bat zen, eta hala bazen, akabo. Amorruren amorruz, oihu egiten zuen, eta txoriak hegan joaten ziren, izuak jota. *Orain begiak malkotan / ta ezin dira lehortu / nere zauriei begira / begiak zaizkit lausotu (...)*. Kantari jarraitzen du, bere jertse potoloaren mahuka begi ertzera maiz eramaten badu ere. Oso sentibera da aitona, eta kontu hauekin are gehiago. Mahuka ukondoraino atzeratu eta eskuin besoko orbaina erakutsi dit. Ulertu diot zer esan nahi zidan. Gerrako zauria da. Erreparatua nion aurretik, eta jakin-mina pizten zidan, baina ez nintzen sekula galdetzera ausartu. Eskumuturretik hasi eta ia ukondorainoko orbaina du. Alderik alde josi ziotela dirudi, jostorratzaren markak ikus ditzaket. Bere garaian, zauri sakona izan zen itxura du, oroitzapen ilun guztiak kabitzeko modukoa. Begiratu orduko, egindako sarraskia gogorarazten diona. Damu da, baina ez dago atzera bueltarik. Berriz begiratu dit aitona. Zerbait esan nahi dit, ongi ezagutzen dut begirada hori:

- Nik ezin dut egindakorik aldatu. Nahiko nuke, baina ezin dut. Zuk hortik ikas dezakezu. Zure eskuetan dago herriaren biharra. Konfiantza dut zuegan. Badakit ongi egingo duzula.

Ez dakit zer erantzun. Irribarre egin dit, benetan sentituta hitz egin du. Konfiantza du nigan, eta horrek tximeletak sortu dizkit sabelean. Aitona badio, lor dezaket. Ez dut etsiko, ez diot aitonari hutsik egin nahi. Bertsoaren azken puntua adorez kantatu dut, herriak behar gaitu.

Zauriak ez dira itxi / ta gerra ez da bukatu.

Hotza



5. SAILA

PROSA

**LOREA
ARRUABARRENA
DESTRIBATS**

ORAIN ZER?

Gela ilun hartako aulkian norbait ikus daiteke, paper zuri batzuei kezkatuta begiratzen diona, bizi izandakoaz beldur eta, batez ere, besteek zer pentsatuko duten kezkatu dagoena.

Eta orain zer? Nori eskatu behar diot laguntza? Laguntza eskatu behar dut? Eta berak harrapatzen banau, zer? Harrapatzen banau, kito...

“Oiartzunen, 2024ko otsailaren 7a

Lagunduko nauela pentsatzen dudana pertsona:

Inoiz ez duzu pentsatu zure bizitzan zerbait beste modu batera egin izan bazenu, dena, den-dena desberdina litzatekeela. Nik askotan pentsatu izan dut... Gau hartan etxean gelditu izan banintz, edota berak begiratu zidanean ez banu begirada alde horretara zuzendu, ez nukeen bere aurpegia ikusiko eta ez genukeen elkar ezagutuko.

Gutun honetan kontatuko dizudan guztia egia da, egia hutsa. Gertatu zitzaidan guzti-guztia ongi ulertzea nahi dut. Beraz, gutun hau, nire iraganera, orainera eta etorkizunera joaten diren bidaiez beteta egongo da. Baina, mesedez, dena ulertutakoan eskatu behar dizut ongi pentsatzeko nori erakusten diozun, laguntza behar dut, eta horregatik idazten dizut. Horrek ez du esan nahi bi aldiz pentsatu gabe edonori erakuts diezaioketunik, zeren berari edota bera bezalakoei iristen bazaie, kito...

Dena hasi aurretik...(nire iraganera lehen bidaia;)

Herriko plazan erositako etxe batean bizi naiz, amaren eta aitaren auzo berean, baina distantzia dexente dago bi etheen artean. Laguntza handia eman didate: haiei esker, azkenean, nire etxea dut eta ikasketak aurrera doaz.

Mugikorrak dardara egin du, Itziar da, nire lagun-mina. Gure lagun baten liguren berri eman dit, Aitzol izena omen du. Berekin konta dezaket laguntza eskatu edota sekretutxoak entzuteko. Ez dezazula gaizki pentsatu maitasun sekretuen istorioengatik, oraindik gazteak gara, 22-23 urte bitarte ditugu, beraz, horrelako gauzetan aritzeko adina dugula esan dezaket. Gazteak garenean, etorkizunean alboan nor izango dugun, norekin biziko garen eta nork maitatuko gaituen izaten dira kezka nagusietarikoak. Horregatik mutil edo neska lagunengaien inguruko zurrumurruak oso erakargarriak zaizkigu.

...

Halakoxea nintzen ni dena hasi aurretik. Edozein gazte inozok bezala, bi pertsonen arteko maitasunean sinesten nuen.

Larunbat gaua (nire iraganera bigarren bidaia;)

Gurasoei gauean lagunekin aterako naizela esatea izan da egin dudana lehen gaua esnatu eta berehala. Lasai ibiltzeko esan didate biek, eta pozarren pasatu dut eguna, gaua noiz iritsiko zain.

Zer jantziko dudana pentsatzen aritu ondoren, nire galtza beltzak eta armairuan topatu dudana kamiseta gorri dotore bat hautatu ditut. Azkenean, Itziarren whatsapp entzun dut, eta segituan jaitsi naiz portalera, bertan ditut lagunak zain.

Gaugiro itzela dago eta gehien gustatzen zaidan erromeria taldea entzuteko aukera izan dut, Laiotz. Kontzertua bukatutakoan, tabernara joatea erabaki dugu, jendez gainezka dago, baina horrek ez gaitu izutzen. Ilara itzela egin ondoren, barran eseri gara, alde batean lagunak ditudala eta beste aldean mutil bat.

Edaria eskatzen ari naizela, mozkor bat kantari eta oihuka hasi da. Denek burua biratu dugu, oiho horiek nondik datozen ikustearren, eta barraren beste aldera begiratzean, nire alboan zegoen mutila ikusi dut.

Berak ere nire alderantz biratu du begirada eta hantxe gelditu gara elkarri begira. Beti pentsatu izan dut ezinezkoa dela bi pertsona begirada batekin maitemintzea, baina gaur nire eskema guztiak hautsi egin dira. Lehenik, begirada bat; ondoren, hasperen bat eta bien arteko isiltasuna nahikoak izan dira elkarrekiko sentitzen duguna adierazteko.

Aurrerago, eduki dugu mintzatzeko aukera. Gaua bere lagunek eta berak gurekin pasatu dute Hernanin, alde batetik bestera. Elkar agurtu dugunean, begietara begiratu eta bere zenbakia eman dit.

...

Horrela igaro zen gau hura. Lagun berria egin nuen, aurrerantzean laguna baino zerbait gehiago bihurtu zena.

UFFF... Gutuna idazteari utziko diot pixka batean, ura edan beharra dut eta komunean eseri kristoren botagurarekin bainago. Listo, jarrai dezaket.

Bera... (nire iraganera hirugarren bidaia)

Bera, ni eta Donostiako Santa Klara uhartetik ikus daiteken bista paregabea. Bera aurrera begira dago; nik, aldiz, aurpegira begiratu diot eta nire barrurako bakarrikzketan hasi naiz; "Haize, nork esango zizun duela hilabete, orain norbaitekin ateratzen ariko zinenik. Norekin eta berarekin, taberna batean ezagutu zenuen mutil batekin, Izeirekin. Bikaina da, plan izugarriak bururatzen zaizkio, begi berdeduna, altua eta indartsua da. Antzeko adina dugu (orain 26 urte ditu) eta erromantikoa baino erromantikoagoa da".

Pentsamenduetatik atera naiz eta egunaz gozatu dugu, izozkia, uhartean bueltaxka eta, azkenik, bainua hartuz.

...

Horrela, joan-etorrian, “perfekzioan”, urte bat joan zen. Gurasoek, lagunek eta gainerakoek gure harremanaren berri jakin zuten, noski. Urte horretan, Euskal Herriko txoko andana bisitatu genituen, Bizkaitik hasi eta Nafarroaraino.

Ni eta nire erabakiak...(nire iraganera bosgarren bidaia)

Nahiz eta ez garen etxe berean bizi, askotan nire etxean pasatzen du astea Izeiek.

Orain, goiza denez, biak unibertsitatera joan aurretik, arropa aukeratzen hasi naiz eta Izei nabaritu dut atzealdean zer aukeratzen nuen zain. Galtza urdin luze batzuk eta kamiseta tiradun zuri bat hautatu ditut. Opari poltsa bat hurbildu dit, pozez ireki dut. Minigona gorri bat oparitu eta unibertsitatera horrekin jantzita joatea proposatu dit. Zalantzari egin gabe jantzi dut, gutxienez oparia eskertzeko.

...

Izeik behin eta berriro egiten zizkidan opariak, beti itxurari lotutako opariak; gona asko, ipurmasaila bistan jartzen duten galtza motzak, eskote handia duten kamisetak, ile-apaindegiko bonuak, ezpainetako gorriak, arrosak... Azkenean, neuretzako arropa erosteari utzi nion. Zer egin behar nuen? Oparitzen zidana zakarretara bota? Berak hautatu eta oparitzen zidan arropa kopurua itzela zenez, ez nuen diru gehiago gastatu nahi izaten.

Isolatuta... (nire iraganera seigarren bidaia)

Bada hilabete ez ditudala lagunak ikusten eta beste horrenbeste gurasoak. Gaur haiek ikustea pentsatu dut, goizean gurasoei bisitatxo bat eta arratsaldean lagunekin plan bat egitea. Baina Izei ez dago ados, larunbata dela eta aste guztian ez garela elkarrekin ia egon dio. Egia da, astean zehar lana egin behar izaten dugu unibertsitatean, neurri batean ulertzen dut. Izei asko maite dut eta berak ni ere asko maite nau edo hori uste dut. Ez ditu gustuko ez nire guraso, ezta lagunak ere, beraz, bakarrik egon nahi izaten du, nirekin bakarrik.

...



udane
2024

Azkenean, urtebete pasatu nuen gurasoak eta lagunak ikusi gabe, beraiekin egon nahi izaten nuen aldiro Izeiek arrazoi asko izaten zituen biok beste zerbait egiteko, beste inor gabe edozein plan egiteko. Horrela, haien hutsunea whatsapp sinple batzuk idatziz betetzeko esaten zidan eta kasu egiten nion. Azkenean, normala den bezala, denek nirekin haserre bukatu zuten, nitaz kokoteraino, beraiek edozer egingo zuketen niregatik, eta nik eskertzan ez nien ia hitzik ere egiten. Badakit ergela izan nintzela pentsatuko duzula, ez niola kasurik egin behar eta lehenengo egunetik besteak ikusteko aukera banuela, baina aurretik ere aipatu dizudan bezala, berak asko maite ninduelako zuen jarrera hori edo hori uste dut. Nirekin besterik ez zuen egon nahi. Ez nion aurpegira esango berarekin egon nahi ez nuela eta espazioa behar nuela, ezta?

Beraz, orain badakizu zergatik ez diodan idazten ezagun bati, denek nirekin haserre bukatu zutelako, denek. Ez nien bisita bat ere egin. Eta orain zer? Orain laguntza eske banoa, interesatu hutsa naizela pentsatuko dute. Hori da, bai, idatzi hau ezagutzen ez dudanez edonorentzat da, “lagunduko nauela pentsatzen dudanez edozein pertsonarentzat”. Izan ere, mundu honetan ni bezalako neskei laguntzeko, entzuteko eta indarra emateko pertsonak badaudela sinetsi nahi dut.

Objektu...(nire iraganera seigarren bidaia)

Unibertsitatetik etxera iritsi naizenean, Izei jadanik bertan dago. Alai ikusten dut, ipurdiko batez agurtu nau, eta nik irribarre goxo bat itzuli diot. Muxu bat eman dit eta berarekin oheratu nahi dudanez galdetu dit. “Nekatuta nago, eta etxeko lan sorta handi bat bidali digute unibertsitatean, nahiago nuke beste baterako utziko bagenu”, esan diot. Baina ez zaio erantzuna gustatu, eta bere bekain tartean zimur bat nabaritu dut. Aurpegia laztandu eta ondoren kamiseta kendu dit, amore eman dut.

...

Ez zara inoiz objektu baten gisakoa sentitu? Ni bai, “Barbie bat bezala” sentitzen hasi nintzen egun hartatik aurrera, berak nahi zuen bezala jantzi eta nahi zuenean erantz zezakeena.

Ez... (nire iraganera zazpigarren bidaia)

- Aurre egin behar diozu, asko maite zaitu, ulertuko du -esaten diot behin eta berriro neure buruari, nolabait hori sinetsi nahian. Etxeko atea ireki dut eta berriro ere bertan dago, nire zain. Betiko ipurdiko alaiarekin agurtu nau, eta oraingoan ez diot irribarre batekin erantzun. Berak oparitutako gona jaisten hasi zait eta eskua geldiarazi diot, begietara begira gelditu zait. Lehen egunean, elkar ezagutu genuenean, bi begirada horiek maitasuna adierazten zuten. Orain, ordea, bi begirada horiek baten desira eta bestearen beldurra islatzen dute.
- Zer? -esan dit.
- EZ, dut nahi -erantzun diot, ahots altuarekin. Begiak itxi ditu eta aurre-egian ukabilkada bat eman dit. Begi artean malkoak nabaritu ditut, bat bestearen atzetik jarioka malkoak, ez nauela maite konturatu diren malkoak, gelditu ezinak. Azkenean, gona jaitsi dit eta lortu du nahi zuena.

...

Besoan dudak ukabilkadari begira nago. Duela gutxikoa da, lehenengoa aspaldi egin zidan, "ezet esan nion lehen aldian", baina geroztik, 10 bat ukabilkada eta bultzada jaso ditut.

Beldur... (nire iraganera zortzigarren bidaia)

Unibertsitatetik atera naiz, inoiz baino lehenago. Jadanik berdin zait, ez dut uste medikua izango naizenik, azken urtean ezin izan ditut lanak egin, ezin izan dut klasean behar bezala kontzentratu eta nire notak behar bezala joan dira, noski. Ezinegonak dut, gaixorik sentitzen naiz, botagurarekin, nahasia, beldurtua. Beraz, gaur ez naiz etxera bueltatuko, gaur medikurengana noa. Test bat egin nahi dut, zer gertatzen zaidan azalduko didan test bat.

...

Gela ilun hartako aulkian norbait ikus daiteke, paper zuri batzuei kezkatuta begiratzen dion norbait. Gela ilun hori medikuaren itxarongela da, eta bi paperi begiratzen diet: bata, medikuaren txostena; eta bestea, idatzi dudak baina bidaltzeko beldur naizen gutuna.

Gutuna; idatzi dut gertatu zaidan guztia. Duela 5 urte hasi nuen maitasun istorio zoragarritik, amesgaizto batean bukatzen den maitasunera. Orain badakizu ni bezalako emakume inozoek harreman batzuk toxi-

koak izan daitezkeela, hortik sexu bortxaketetara pasa daitezkeela eta hortik jipoituak izatera. Eta orain zer? Zer egin behar dut?

Azkenaldian, heriotzarekin mehatxatu nau, heriotzarekin. Harrapatzen banau, kito.

Medikuaren txostena; hitz bakarra darabilt buruan; “positibo”. Botagura eta mareoak, haurdunaldiaren sintomak besterik ez dira. Ergel horrek haurdun utzi nau. Norbaitek bortxatzen zaituenean, ez duzu erabakitzen nolako sexu harremana izan nahi duzun, ez duzu erabakitzen babesik erabili nahi duzun edo ez, ez duzu erabakitzen bera bezalako pertsona batekin haurdun gelditu nahi duzun ere ez, ez duzu ezertxo ere erabakitzen.

Haize, lasai egon, dena konponduko da, lasai... EZ, ez esan txorakeriarik Haize, ez da bakarrik konponduko. Datuek diotenez, biktimen %8ak bakarrik salatu ditu bortxatzaileak. Datuek diotenez, Izeiren mehatxua ez da txantxa bat: 2023. urtean, 50 emakume hil zituzten bortxatzaileek Espainian soilik. Ez da txantxetarako kontua.

Eta orain zer? Nori eskatu behar diot laguntza? Laguntza eskatu behar dut? Eta berak harrapatzen banau, zer? Harrapatzen banau, kito...

Eta orain? Orain dena. Ez naiz isilik geldituko, ez naiz bortxatzaileak salatu ez dituen %92 hori izango. Gutun hau ezezagun bati bidaltzeaz gain, gurasoei, lagunei eta denei erakutsiko diet, ulertuko nauten esperantzaz. Ez naiz besteek pentsatuko dutenaren, etxera bueltatzearen eta heriotzaren beldur izango. Ez, ez naiz bera bezalakoez beldur izango.

Eta zuri, txiki, niri bakarrizketa guztiak entzungo dituen fetuari, ez dudala abortatuko esan nahi dizut. Gurea ez da ametsetako familia izango, baina maitatua izango zara. Ez da erraza gertatuko, ziur, baina ez naiz maitatzeaz beldur.

Agur bero bat, irakurle kuttuna”.

Oihu



5. SAILA

PROSA

INTZA
ZABALETA
IBARRA

“PI-PI-PI”

2024-08-21

Bi mendizale gipuzkoar hil dira Mont Blanc du Tacul mendian, Frantziako Alpeetan. 25 urte zituen batek, eta 28 urte besteak; ‘BERRIA’-k jakin duenez, Doneztebekoa da bat, eta Usurbilgoa bestea, baina Tolosan bizi zen. Tontorretik jaisten ari zirela izan dute istripua, Gervasutti bidean rappel egiten ari zirela. Efe albiste agentziak argitaratu duenez, ehun metro ingurutik erori dira, zergatik ez dakitela. Haiekin zen beste mendizale bat bizirik atera da; hura ere Doneztebekoa da.

2024-8-19

- Banoa, ama, Peio zain dut jada.
- Kontuz ibili, mesedez. Badakizu ondo ez zaizkidala batere gustatzen harkaitz horiek.
- Bai, ama, lasai egon zaitezke, beti kontu handiarekin egiten baititugu gauzak.
- Zaindu, maitia!

2024-08-20

“Pi-pi-pi” alarmaren soinuarekin esnatu dira hiru lagunak, gosalduta, gauzak jaso eta abiatu egin dira Mont Blanc mendira. Badakite arriskutsua dela, eta horregatik, beharrezko material guztia eramane behar dutela.



udane
2024

Hala ere, oso gogotsu daude hirurak. Batak besteari lagundu dio soka jar-tzen, eta gorantz igotzen hasi dira.

Deskantsatzeko toki batera iristerakoan, monumentu txiki bat ikusi dute, bertan hildako batzuen izenak daude. Hirurei hainbat ideia etorri zaizkie burura:

- (A: Zenbat urte izango ote zituzten?)
- (B: Gaixoak...)
- (C: Familiek nola jasoko zuten notizia?)

Isiltasuna deserosoa izan da minutu erdi batean, batek moztu duen arte. Ez du ezer esan, baina ondoko margarita zuri sorta bat ipurditik atera eta monumentuaren bazterrean jarri ditu. Besteak, jakin-mine, galdera bat bota du:

- Zergatik jartzen dira beti hildakoen ondoan loreak?
- Ummm, loreek bizia dutenen eta hildakoen arteko lotura sinbolizatzen dute, kontsolamendua eskainiz eta bizitzaren edertasun iragankorra gogoratuz.
- Ba niri soilik hildakoak gogoratzen dizkidate eta ez dut uste oso pozgarria denik, gainera beti mota berberekoak.
- Hori egia da...

Bideari jarraitu diote, eta gaurko egin beharrekoa bete dute. Hortaz, lo egingo duten etxola bilatzen hasi dira. Harrapatu dutenean, barrura sartu, motxilak hustu eta afaria prestatzen hasi dira. B-k motxilatik botikin bat, beroa ematen duen manta fin-fin bat, kontserbak eta abar atera ditu. Beste biak txunditurik geratu dira.

- Baina zenbat gauza ekarri dituzu?, soilik bi egunetarako etorri gara eta.
- Badakizue, amak sartu dizkit badaezpadakoak: botikina, zaurientzat; janaririk ezin prestatuz gero, kontserbak jateko... eta jakina, sokak. Mosketoiak hamar aldiz ziurtatzeko esan dit, erorikorik ez izateko.

Berriz ere, etxolan isiltasuna:

- (A: Ez dut uste hori dena ekartzea beharrezkoa dela)
- (B: Amak jarri dizkit, baina beharrezkoak ikusten ditut...)
- (C: Ez ditugu erabiliko... edo bai?)

“Pi-pi-pi”, mugikorreko iratzargailuak jo du, janaria prest dagoela abisatzeko. Afaldu eta ohera joan dira, bihar ere goiz jaiki behar baitute.

2024-09-21

Hurrengo egunean, berriz ere alarma hotsak esnatu ditu hiru mutilak, gosalduta eta abiatu egin dira. Azkenean, kostata eta hainbat geldialdi ginda, Mont Blanc mendi puntara iritsi dira. Elkarri bostekoa eman dio-

te eta poz handia dute hirurek. Argazki batzuk atera ostean, behera jais-teko txanda da. A lehenengo jaitsiko dela adostu dute eta besteek goitik grabatuko dutela jaitsiera. Horrela, harkaitzean zuloa egin dute, beraiek bertan zintzilikatzeko eta besteak bera jaitsi ahal izateko. Behera jaisten hasi baino lehen, beste biek ez dute harkaitza sendo sumatu eta mugitzen hasi da. Halako batean, harkaitz puska askatu eta behera erortzen hasi da, beste bi mutilekin batera; bi mutilak azpian geratu dira.

Zintzilik geratu denak behera begiratu du lagunak ikusteko. 10 minutuz onartu ezinik behera begira egon da. Baina erreakzionatu duen bezain pronto, behera jaitsi eta laguntza eskatzera joan da. Kostata, baina frantses batzuekin komunikatzea lortu du eta haiek larrialdietara deitzea. Beste frantses batzuk etorri dira eta mutila ospitalera eraman dute. Beste batzuk, ordea, gertaera izan den lekura hurbildu dira. Jende guztia mugikorrarekin ari da, deiak gora, deiak behera.

- Kaixo, Aritz Mendizabalekin ari naiz?
- Bai, ni neu.
- Bakarrik zaude, etxean?
- Bai, nire emaztea hemen da, baina etxean nago, bai...
- Esertzeko eskatuko nizuke, mesedez.
- Bale, baina zer gertatzen da?!
- Sentitzen dut... zoritxarrez, esan beharra dizut... zure semea eskalatzen erori eta hil egin dela.
- Zer?

Ez zuen ezer gehiago esan, telefonotik irtendako azken soinua “pi pi pi” izan zen.

2024-8-23

Herriko guztiak beilatokira joan dira gazteak azken aldiz agurtzera. Denak, atetik sartu orduko, negarrez hasten dira. Ez dago bat bera ere aurreagian malkorik ez duenik. Bizitzaren zentzua zein den galdetzen diote beren buruari, jaio eta hil egingo bagara.

Zeure buruari galdera hori egiten badiozu, zure bizitzak argirik ez duela erakusten du, ez zarelako orain eta hemen bizi. Bizitzak zentzu handia du eta trena behin bakarrik igarotzen da. Egunero eman eskerrak jaio

izanagatik, jende zoragarria ezagutzeagatik, familia eta lagunak izateagatik, eskubideak izateagatik, lana, gizarte demokratiko batean bizitzeagatik, ezagutza ikaragarriak ikasi izanagatik, besteek izango duten etorkizunean arrastoa utzi izanagatik.

Aurkitu zure barruko ahotsa, zure zoriontasuna, maite duzuna, ondo sentiarazten zaituena. Seguru asko bizitza zure zain dago aukera sorta oso zabalarekin. Denbora aurrera doa. Ez utzi gerorako, bizi zure bizitza zure azken eguna izango balitz bezala, “pi-pi-pi” entzun aurretik.

Mari Kalanbre



6. SAILA

PROSA

**MANEX
ELGETA
TOLOSA**

MUGA GUZTIEN GAINETIK

Gurea 7 senideko familia bat da, gure aita merkataria zen eta igandero-igandero jartzen zuen bere postutxoa herriko azokan. Gure herria ez da handienetarikoa, etxe txikiak daude, eta 400 bat pertsona inguru biziko gara. Asterix eta Obelixen herria bezalakoa da. Baina beti herrialde handiz inguratuta egon dena.

Igande hartan beste guztietan bezala gure aita eta neba zaharrena hantxe joan ziren beren mahaitxoarekin barazkien postua jartzera. Goiza ondo zihoan, jendetza zegoen merkatuaren plazan eta aita sekulako kaja egiten hari zen, horrek esan nahi zuen aste guztian jatekoa izango genuela. Baina azkar ilundu zen egun argitsu hura.

Gurean ez ziren ohikoak hegazkinak, kotxeak eta helikopteroak, baina, bat-batean New Yorken geundela ematen zuen. Txoriak baina hegazkin gehiago zebiltzan zeruan, oinezko baino auto gehiago errepideetan. Harrituta geratu zen herriko jendea, baina gutxi iraun zuen horrek.

Bat-batean dena gelditu eta tiroka hasi ziren, kaosa izan zen hura. Bonbak euria bezala erortzen ziren. Denak korrika eta oihuka hasi ziren, baina batzuk bertan geratu ziren betirako; horietako bat nire aita zen. Guk dena etxeko leihotik ikusi genuen. Beldurrez eta ezer ezin genuela egin. Esku eta hankak lotuta genituen, ateraz gero tiroz hilko gintuztelako.

Lehen esan bezala, gure aita bertan hil zuten eta etxean diru iturri gabe geratu ginen. Ama egoerak gaindituta zegoen, 7 seme-alaba zituen eta



udane
2024

haiek mantentzeko dirurik ez. Halako batean iskanbila bukatuta ama kaleraren irten zen; denbora askoan itzultzen ez zenez, haren bila hasi ginen. Halako batean aurkitu genuen, baina ez guk nahi izango genukeen beza-lak. Bere buruaz beste egin zuen amak.

Orduan anai-arreba guztiak bildu eta pentsatzen jarri behar izan genuen egoerak derrigortuta. Mahai inguru hartan azaldu zen lehen aldiz *migratzio* hitza gurean. Anaia zaharrenak esan zuen familia aurrera ateratzeko norbaitek migratu egin beharko zukeela eta justuena zozketa bidez aukeratzea izango zela.

Azkenean familiako bi kidek migratzea erabaki genuen, eta zozketak hala erabakita, nire anaia zaharrena eta ni izan ginen hautatuak. Ez genuen espero, 7 senideetatik aukera gutxi zegoen guri tokatzeko, baina hala tokatu zitzaigun bioi honainoko bidaia egitea.

Bidea ez da batere erraza izan, eta ez da askok uste duzuen gisan, patera batean sartu eta itsasoak aurrera eramatea. Gure herria, adibidez, itsasotik oso urrun dago, eta 7 egunez ibili behar izan ginen desertuan barna kostaldera iritsi arte. Egunean egunekoa bizitzen eta jateko eta edateko-rik izan gabe.

Baina, azkenean, ailegatu ginen. Bertan mafia bateko gizonak itxaron zituzten, dena oso arrotza zen. Gu esandako lekura joan ginen, portuko 6. bankura. Bertan geundela, 5 minuturen buruan edo, gizon bat gerturatu zitzaigun atzetik. Sorbaldan ukitu eta oinez joan zen patxadan. Guk elkarri begiratu eta haren atzetik joateko hautua egin genuen, bera mundu politera eramango gintuena izango zelakoan.

Zuzen geunden, bai, bera izango zen aurrerago bidea markatuko ziguna. Beste 60 bat lagun zeunden leku batera eramanez gintuen eta arauak esaten hasi zen mafiako buruetako bat. Gu isil-isilik geunden, beldurtuta. Badaezpada kasu egin eta ahalik eta gutxiena eragozten.

Halako batean plastikozko itsasontzi baten aurrean jarri gintuen eta banaka-banaka sartzen joateko esan zigun. Baina, hori bai, lehendabizi berari diru guztia emanek gero. Motxilan genuen gutxia ere kendu zigun gizon hark. Denarekin geratu zen. Motorra martxan jarri eta garrasi ba-

tez hala esan zigun: “Zuek segi aurrerantz, eta lurra ikusten duzuenen bertan geratu, iritsi zaretela esan nahiko du”.

Hori zen gure erreferentzia bakarra, lurra ikustea. Galduta geunden, ez genekien nora joan eta zer egin, baina bai, halako batean 5 egunen ondoren-edo ikusi genuen lurra. Eta pozik jarri ginen, baina horretarako zenbat gauza bizi izan behar genituen pentsatzen. Gure bidaiari 8 pertsona hil ziren eta beste 13 itsasora erori ziren, baina azkenean lortu genuen berriz ere itsasontzira igotzea.

Bidaia ez zen batere erraza izan eta oso gaizki pasatu genuen denok. Eurria, haizea eta ekaitza izan genituen bidelagun eta egoera hartan ez ziren oso lagun onak izan, baina, ze gogoz txalotu genuen lur eremu hori ikusi genuenean. Ze inozenteak ginen, oraindik ere ez genekien zer zetorren.

Gauetz iritsi ginen, hotzez, gosez eta urik edan gabe. Ahul geunden eta oraindik bidaiaren zati handi bat geratzen zitzaigun aurretik. Txalupa hartatik jaitsi eta deus esan gabe kamioi handi batzuen azpialdean lo-tzen gintuzten mafiakoek. Orduan galdu nuen nire anaiaren pista.

Juxtu jolas-orduko txirrinak jo du eta gelara joan behar dugu. Oraindik ez dut bukatu nire gelakideei nire abentura kontatzeaz, baina hurrengo batean amaituko dudalakoan, poz-pozik noa gelara. Nire barrenak askatu ditut eta denek entzun didate, beraz, aurrerantzean ere, hurrei hizketan jarraituko dut helduek bizkarra emateari uzten dioten arte.

Eta gogoratu gure herrian ere azoka egun bat bonba hotsez amaitu zela, 1937an Gernikan.

Zirrikitu



6. SAILA

PROSA

**ILARGI
ZIAURRITZ
OLAZIREGI**

SENTITZEN DUT

Askotan pentsatu dut gure bizitza jada bizi izan bagenu bezala dela. Gizarteak bizitza monotono bat edukitzera eramaten gaitu: jaiotza, ikasketak, lana, jubilazioa eta heriotza. Agian egunerokoan egiten ditugun erabaki txikiek egiten dute gure bizitza besteengandik desberdinak, baina ongi erreparatuz gero ez gara hain desberdinak. Inposatu diguten lerro ikusezinetik gehiegi irteten bazara ingurukoek ez dute desberdintasun hori onartzen. Ziurrenik gizakia ezjakintasunaren beldur delako, eta ezaguna egiten ez zaiona baztertu egiten duelako.

Hori da zuri gertatu zitzaizuna. Mundua beste modu batera ikusten zenuen, baita adierazi ere. Zure sentimenduak ozenki adierazten zenituen, zure burutik pasatzen zena denekin partekatzen zenuen. Hori dela eta, beti aurreiritziz beteriko begiradak jasotzen zenituen. Ez zenion inoiz pertsona bakar bati gaizki hitz egin, baina klasean irakasleari ere errespeturik adierazten ez zion handiustea gelakide guztiek gorai patzen zuten bitartean, zu denek baztertzuten zintuzten.

Nik ez nuen denen ahotan egon nahi, horregatik ez nintzen bi alderdietako bakar batean ere kokatzen. Baina nire barruan, beti nengoen zure alde, izan ere, inor egitera ausartzen ez zena egiten zenuen: zure izateko era besteen aurrean adierazi, gainontzekoek zer pentsatuko zuten kontuan eduki gabe.

Beti miresten zintudan, itzalpean izanda ere. Horregatik, zurekin sartzen ziren bakoitzean isilpean sufritzen nuen. Inork ez zuen larritzat hartzen,

dena komentario txikiekin hasi baitzen. Irakaslea ere ez zen ohartzen gelakide guztiak zure aurka zeudenik, arrazoirik gabe elkar iraintzea gaur egungo gazteen harremantzeko modua zela uste zuen.

Baina benetako arazoa gelara aurpegiko ubeldura horrekin etorri zine-nean hasi zen. Inork ez zizun ezer galdetu, denek ezikusiarrena egiten zuten. Nik ordea zuri galdetzea erabaki nuen. Zuk, zure aurpegian irribarre eder bat marraztu eta honela esan zenidan:

– Atearen kontra kolpe bat hartu nuen, besterik ez. Nire baldartasunak ez du mugarik.

Banekien zure hitz horiek zerbait ezkutatzen zutela, baina horri buruz hitz egin nahi ez zenuela pentsatuz bakean utzi zintudan.

Egun hartatik aurrera zugar zerbait aldatu zen, ez zinen lehengo berbera. Hainbeste gustatzen zitzaidan zure begietako distira joan egin zen. Klasean egiten zenituen ekarpenak nabarmenki gutxitu ziren, jada ez zenuen ia inorekin hitz egiten. Zure barnea askatzeko beldurra zenuela zirudien, zure izaera inori erakutsi nahiko ez bazenio bezala jokatzeko zenuen.

Zure aurpegiko ubeldurak ez ziren lehenengo horrekin batera joan. Zure azalean gero eta ugariagoak zirenez, jertse luzeak janzten hasi zinen. Berriz ere inork ez zuen ezer galdetzen, denek gauzak berdin jarraituko balute bezala egiten zuten. Eta noski, zurekiko egiten zituzten komentarioak ez ziren amaitzen. Apurka-apurka, komentario txiki horiek irain bihurtu ziren, baina zuk ez zenuen haiei aurka egiteko indarrik.

Denok genekien gorputzeko orban horiek ez zirela zure baldarkeriaren ondorio eta zuk bazenekien hala zela, baina inork ezer esaten ez zuenez, zuk ere berdina egitea erabaki zenuen. Ez dut inoiz ulertu zergatik ez zenuen laguntza eskatu, zure egoera ikusita ez zenuen galtzekorik. Halere, zure mina besteekin partekatu beharrean, zuretzat gordetzea erabaki zenuen.

Azken asteetan ez zinen eskolara etorri, ulergarria egiten zitzaidan hain denbora gutxian gelakideek sufriarazi zizuten guztiaren ondoren atse-den bat behar izatea. Hala eta guztiz ere, arraroa egin zitzaidan hainbeste denboran ez etortzea.

Egunak igaro dira eta zu ez zara ageri. Inork ez du ezer esaten, ezta irakasleek ere. Ni, aldiz, kezkatzen hasia nago, non sartu zara?

Gaur matematikako klasean geunden bitartean zuzendaria sartu da gelara. Denok harritu gara, ez genuelako bere bisita espero. Aurpegi serioa-rekin etorri da eta isiltasuna eskatu digu:

- Dakizuen bezala, zuen gelakidea den Ariane ez da eskolara etorri azken aste hauetan. Hau esatea gogorra da niretzat, baina jakin ezazue ez dela gehiago etorriko, bart gauean bere buruaz beste egin baitu. Asko sentitzen dut.

Ingurura begiratu dut sinetsi ezinik. Gelakide guztiak isil-isilik geratu dira, baina inork ez dirudi atsekabeturik dagoenik. Ez nekien hain bihizgabeak zirenik. Egin dizuten guztiaren ondoren ez al dira errudun sentitzen?

Egoera ikusitakoan ezin izan dut nire aulkitik bortizki altxatzea eta gelatik irtetea saihestu. Malkoak nire masailetan sentitzen ditut eskolatik korrika irteten naizen bitartean. Ezin dut sinetsi galdu zaitudanik. Baina are gogorragoa egiten zait gertatutakoaren aurrean jendeak nolako jarrrera izan duen ikustea. Nolatan izan gaitezke gizakiok hain geurekoiak?

Orain denek jarriko dute pena aurpegia zuri gertatutakoak beraiengan eragina izan duela adierazteko. Baina badakit hilabete barru inor ez dela zure historiaz gogoratuko, izan ere, geure buruarengan baino ez dugu pentsatzen. Denok antzezten dugu gure desberdintasunak ezkutatzuz “perfekzioa” bilatzen saiatzeko. Ez gara ohartzen, ordea, bilatzen dugun hori ez dela existitzen eta maskara baten atzean ezkutatzeko geure buruari kalte besterik ez diola egiten. Baina nola kenduko dugu maskara, den bezalakoa dena horrela tratatzen badugu?

Aspertu naiz bizitza honetaz. Maskara kendu eta zurekin batera mundu jasangarriago baten bila joango naiz. Mila esker begiak irekitzen laguntzeagatik.

Barkatu



udane
2024

OIARTZUNGO XXXVII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2024**



POESIA



3. SAILA

POESIA

**MAITE
IBARGUREN
ZUÑIGA**

MARTXOAREN INDAR MOREA

Martxoaren indar morea,
kolore guztietakoak onartzen dituen.

Martxoaren indar morea,
harria bezain gogor altxatzen dena.

Martxoaren indar morea,
eskubideak lortzeko onena.

Martxoaren indar morea,
baztertuko ez gaituena.

Martxoaren indar morea,
libre izatearen gozamen.

Martxoaren indar morea,
inperio matxistaren hondamena.

Martxoaren indar morea,
bukatu da sufrimena.

Martxoaren indar morea,
ehun eta berrogeita hamar urteko borrokaren lorpena.



Martxoaren indar morea,
bukatu dira tristura eta pena.

Martxoaren indar morea,
herriko edozein emakumerena.

Martxoaren indar morea,
Altxa eta egin dezagun nabarmena!

Sufragista txikia



3. SAILA

POESIA

**JAKES
ETXEBESTE
SALABERRIA**

BURUKO AZKURA

Salto eta salto gustura,
salto eta salto burura.
Ederki zabilta familia artean!
Bat-batean goian eta behean
algaratan eta barrean.

Itsusia bezain azkarra
taldean ongi,
sekula ez zara bakarra.
Dantzarazi didazu
atzaparra!

Kutsakorra beti,
inoiz ez ezti
ile tartean, gozamenean,
zabilta ederki!

Marroi edo beltz koloreko jantziak
bat bi edo hiru dituzu begiak
sei hanka nazkagarri eta lodiak!!

Zorri, arkakuso eta akaina,
denen artean ni zorabiatzeko adina!!
Baina, baina, alajaina...
Zu bihurria bai
txikia duzun arren tamaina!

Salto eta salto gustura,
salto eta salto burura.
Baso iletuetan nonahi,
basamortuetan, ai! ai!
Zu zara, bai zorria...
nire burura,
ez zara ongi etorria!!!

Printzesa



udane
2024




3. SAILA



POESIA

**UNAX
ARRASTUA
PAGADIZABAL**



udane
2024

AZKEN BIDAIA

Udaberriarekin batera
jaio nintzen.
Ez nintzen bakarrik,
anai-arrebak nirekin zeuden.
Egunak pasa ahala
handitzen eta handitzen
joan nintzen.

Udara ailegatu zen eta
guztiak fresko eta eder.
Mila anai-arreba baino
gehiago ginen eta
elkarrekin bizitzera
ohituta geunden.
Zer erremedio!

Orain, udazkena da eta kolorez
aldatzen hasi naiz.
Mila anai-arrebetatik erdiak
geratzen gara.
Beste erdiak hil egin zaizkit.

Urduritzen hasita nago.
Ez dut hil nahi
baina zimurrak ateratzen
hasi zaizkit.

Asteak aurrera doaz eta
haizea firin-faran dabil.
Gutxi batzuk gelditzen gara
amaren besoetan.
Horregatik, gero eta
urduriago nago.
Familia txikitzen ari zaigu.
Gaur gauean ekaitz
gogorra egin du
baina sendo eutsi
diot adarrari.
Ez dut erori nahi.

Gaur konturatu naiz
bakarrik gelditu naizela.
Udazkeneko lehenengo izotzak
lurrera bota nau.

Lagunkoi



4. SAILA

POESIA

**AITOR
AGIRRE
GONZALEZ**

AMILDEGIA

Amildegia baten aurrean nago
eta ezin dut salto egin,
harriak ditut gainean.

Beheraka begiratu dut eta
amildegiaren sakonera handiegia da.
Ezin dut salto egin,
harriak ditut gainean.

Harriak ditut gainean,
beldurra zainean,
triste nago nire itxura alaienean.

Amildegia txikia besteentzat,
baina ez niretzat
eta nire pentsamendu garratzentzat.

Bat-batean zu azaldu zara
eta laguntza eskaini didazu.
Horrelakoxea zara zu.

Pentsamenduak askatu dizkidazu,
ni askatzeaz gain.



udane
2024

Zama handi bat kendu didazu.
Orain amildegia txikiagoa da,
eta nire itxura alaiagoa.

Gaingan nuen motxila kendu didazu,
nire umorea aldatu duzu.

Orain salto egin dezaket,
zulotxo hori pasa dezaket.
Orain aske naiz.

Amildegi txiki bat nire atzean dago,
dena zuregatik.

Begi beltz



4. SAILA

POESIA

**OLIVIA
IGEA
MARTIN**

GALDUTA

Galdu egin behar duzula
esaten dute
berriz zeure burua aurkitzeko

baina aspalditik
nago galduta,

aspalditik ez dut
irtenbiderik aurkitzen.

Ezer gabeko leku batean nagoela
ematen du,
hutsa eta hotza.

Handia da
berriz bizitza bizitzeko
dudan gogoa

baina galduta jarraitzen dut urte hartatik,
dena aldatu zen urtetik.

Ni mintzen hasi zinetenean
dena iluntzen hasi zen.



Pixkanaka soka bat
gero eta estuago
heldzen ari zait,

eztarrian korapilo bat dut,
eta handitzen doa

nire pentsamenduak ere
jirabiran daude

baina nik...

nik neure burua aurkitu
eta bizitza bizitzea zer den
sentitu nahi dut.

Oligma



5. SAILA

POESIA

**MADDI
GARMENDIA
IRASTORZA**

ETXERAKO BIDEA

Ia ez nuen gogoratzen
hara iristeko hainbatetan egin dudan bidea.
Kurbatsua eta ez oso luzea.
Aspaldi egon gabe,
aspaldi nahi gabe.

Ataritik sartu eta beste pare bat auto daude.
Orduan etorri zait
hainbeste maite dudan sukalde usaina
eta hain ezaguna egiten zaidan iskanbila soinua.

Denak daude,
denok gaude.
Denbora asko pasa da haiek besarkatu gabe.
Tarte luzea pasako ote da berriz ikusi arte?

Jaten hasi gara,
zenbat barre eta algara.
Etxean egindako bazkariak
lotzen nau berriz sustraiaetara.

Sua piztu eta begira nago,
babarrun zuriak edo gorriak,
ez dakit zer dudan nahiago,
baina berdin zait mahaia beteta badago.



Faltan sumatu dut amona,
etxe honetan denbora luzez egona.
Emazte, amatxo, lagun
eta emakume ona.
Niretzat erreferentea den pertsona
eta etxe honetako zoriona.

Aitona ere hemen da,
segur aski, pentsatzen ari da bertso bat edo bi.
Ez du beharko denbora gehiegi.
Mesedez, jarrai dezala izaten urte askotan
etxe honen zaindari.

Izebak kantari ari dira:
osaba, aldiz, gitarra jotzen,
nik ez dut malkoei eustea lortzen.
Lehengusuak txaloka jolasten
eta gurekin dabilta baserriko animaliak
suaren inguruan dantzatzen.

Lehen txikitan gehiago etortzen nintzen.
Baina etorri nahi dut noiznahi.
Oraindik ikusi nahi ditut aitona-amonak alai,
hemen igaro nahi dut edozein festa edo jai.
Ez dut egon nahi familia ikusteko egun zehatz baten zai
eta batez ere,
ez dut etxerako bidea ahaztu nahi.



5. SAILA



POESIA

**MARTÍ
CASANOVA
MANERA**

NI

Nor naiz ni?

Badakit bizitza bizitzea eragozten didan korapilo estu bat
dudala nire barnean.
Badakit askotan nire begiak malkotan itotzen direla.
Badakit nire bidea osatzeko nirekin gurutzatu diren pertsonen
oztopoak jarri dizkidatela.

Baina... Nor naiz ni?

Nortasunik ez duen ume gaixoa, besterik ez.
Bakardade hutsean bizi den ume gaixoa, besterik ez.
Irtenbiderik ez duen ume giltzapetua, besterik ez.

Ikusezina naiz mundu guztiak zoriontsu dirudien arratsalde
argitsu batean.
Hasieran, arratsalde argitsu batean, baina azkenean, inolako
zentzurik ez duen arratsalde ilun bilakatzen dena.

Ni, sentimenduak kanporatuz, jasan behar izan ditudan
besteen aurreiritzi, irain, min eta beldur guztiekin.
Besteak, nahiz eta haien gorputzak kontrakoa kanporatu,
beren aurpegiak beren egoera salatzen duten arazo, kezka eta
zailtasun guztiekin.

Nire bizitzan lurrera botako nauten hainbat eragozpenek naute
ume ezgaitu bihurtzen, lurretik altxatzen eta aurrera jarraitzen

badakidalako, baina nekez altxatuko naiz lurretik inork ez
badit eskua luzatzen, edota behin eta berriro lurrera botatzen
banaute.

Horregatik, geldirik geldituko naiz, ezer egin gabe, zer egin
jakin gabe.

Beste guztiei begira, babesteko jarri dituzten maskarei begira.

Arazoa ez da nire izaera gehien estaltzen duen maskara
jartzera ausartzen ez naizela, nire izaera gehien estaltzen duen
maskara jarri nahi ez dudala baizik.



Ez dut besteen menpe egon nahi.
Ez dut besteek esaten dutenari begira egon nahi.
Ez dut nire izaera besteen izaeragatik ordezkatu nahi.
Ez dut besteek duten itxura eduki nahi.

Nire menpe egon nahi dut.
Nik esaten dudanari begira egon nahi dut.
Nire izaera nirea izatea nahi dut
Nik dudan itxura eduki nahi dut.

Ez dut zu izan nahi.
Ez dut ni ez naizen inor izan nahi.
Ni izan nahi dut.
Ni neu.
Eta ni bakarrik.

Xuxumeku



5. SAILA



POESIA

**IRAIA
GAZTELUMENDI
OLASKOAGA**

NEGUAREN HASIERA

Hotz handia egiten du,
hostoak poliki-poliki
erortzen dira zuhaitzetatik
eta elurra mara-mara zerutik.

Tximistak noizean behin jausten dira
zeru beltzetik.
Zerua haserre eta urduri dago,
eguzkia noiz atera zain,
laino beltz horietatik.

Txorien migratzeko momentua da,
neguaren hasiera.
Zuhaitz guztiak biluzik geratzen ari dira,
hostoak jada joan dira adarretik,
egin dituen udazken-haize boladengatik.

Gauak egunak baino luzeagoak dira.
Kaleak hutsik daude, inor ez dago bertan.
Farolen argi izpiak besterik ez dira ikusten,
eta tximinietatik
ke grisarekin batera
egur usaina ateratzen da.

Txantxangorriaren
kantua entzun daiteke isiltasunean, iluntasunean.
Parkean dauden umeen algarak iristen dira noizean behin.
Etxe askotara
poza eta zoriontasuna iristen ari da:
amaren ondoan jarritz, opariez berriketan.

Kaleetan kolore argiak dira ikusgarri,
ilusiozko malkoak erortzen dira begietatik.
Ilusio malkoak hemen,
tristura eta amorruaren malkoak
han, Palestinan.



Luma

udane
2024



6. SAILA

POESIA

**MALEN
ETXEBESTE
LEKUONA**

NORA JOAN

Espaloian eserita nago,
begirada ezerezean galduta.

Jendea dabil inguruan
korrika,
oihuka,
baina berdin zait.

Nik ez dut inora joan behar.


Nik ez dut presarik.

Zitxada bat ezustean.

Zitxada zorrotz batek zeharkatu nau.
Zitxada garratz batek itsutu nau.

Mina isildu nahian edo,
begiak itxi ditut.

Malko batek,
malko lotsati batek,
ihes egin dit ustekabeen.



Masailean barrena
irristaka sentitzen dut,
motel,
hauskor,
epel...
kilimak egiten dizkit.

Haren atzetik joan dira hurrengoak,
bizkorrago,
ausartago,
lodiago...
lehenaren arrasto umelari segituz.

Begiek erretzen naute.
Ia bularraldean dudan korapiloak beste
erretzen naute begiek.

Berdin zait.

Berdin zait malkoen epela.
Berdin zait begietako gazia.
Berdin zait korapiloaren kiratsa.
Berdin zait jendearen iskanbila.

Espaloian eserita nago,
begirada ezerezean galduta.

Nik ez dut inora joan behar.

Nik ez dut nora joan.

Orbainak



6. SAILA

POESIA

**AURITZ
JAUREGI
IRASTORZA**

ZILARREZKO ARGIA. ZU.

Bada aurpegi bat zeru goian,
itsas-apar eta nakarrez,
perla-arnas eta zilarrez,
edo elurrez egina agian.

Begiak itxi ezinik gaua.
Masailetan behera negarra,
bekokia nire labarra,
kolkoa nire putzua.

Laino beltzen artean bera
irribarrez, niri begira,
ahoan, eztañuzko lira,
barre-hotsa, zerutik behera.

Zer gertatzen zaizu, mutiko?
egin zidan galde Ilargiak.
Aspaldi alde eginda ausardiak,
jakin dut deus ez dela betiko.

Min hotza, nahi baino gehiago.
Buruko hitz arruntak, aiztoak,
metal-soinuzko amesgaiztoak,
ni neu, nahi baino ahaztuago.



udane
2024

Ostaldea katez gainezka,
airean iparraren kankak,
kristalezko asperen-tantak.
Zer da erreala? Zer kezka?

Baina hor zaude, nire lilura,
nire bihotzaren azala.
Perla sentikor bat bezala
argitzen duzu itsasoko ura.

Zilarzale



Antolatzailea:
Euskara Batzordea



OIARTZUNGO
UDALA